

arteka

URRIKO EGUN GORRIAK



GEDAR

Urriko Zikloan ekoizpen kapitalistari lotutako kategoriek benetan instituzio gisa iraun bazuten –eta are gehiago, ziklo horren gaur egungo ikuskeran irauten dute–, ez da sozialismoa hori delako, hori besterik ezin izan zelako izan baizik. Izan zenarekin etsia hartzea baino handiagoa izan behar du gure anbizioak, badakigulako izan zena porrot handiago baten ataria besterik ez zela izan; eta ez anbizio handiagorik ez zutelako, nahiz eta hori izan errebisionismoaren gaur egungo irakurketetatik ondorioztatzen dena

Edukiva

6

10

22

46

66

EDITORIALA

Arteka

**Urriko Ziklo
berri bat**

ERREPORTAJEA

Jon Larrabide

**Gainezka egiteko
tanta bat falta
duen edalontzi
baten zirriborroa**

KOLABORAZIOA

Álex Fernández

**Izotza haustea:
mende bateko
iraultzaren epai
historikoa egiteko
analisi-elementuak**

ERREPORTAJEA

Pau Plana

**Sobietar
esperientziaren
inguruko eztabaida
estrategiko baterako**

HISTORIA ERREPORTAJEA

Miguel García

**XX. mendeko lehen
erdiko mugimendu
iraultzailea**

Urriko Ziklo berri bat

Editoriala

XX. mendeko ziklo iraultzaileak –Urriko Zikloa bezala ezagutzen dena eta Errusian izan zen sobietar iraultzarekin hasi zena– komuniston kontzientzietan pisua izaten jarraitzen du gaur egun ere. Batez ere, eta guztiaren gainetik, porrot egin zuelako. Baina baita porrot horrek esan nahi duenagatik ere. Porrot horrek ez du soilik esan nahi ezin izan zela nazioartean komunismoa eraiki planteatzen zen bezala. Horrez gain, eta batez ere, komunismoa lozorroan sartzea esan nahi du, boltxebikeek abiarazitako estrategia komunistan urteek eraginik izango ez balute bezala.

Beste modu batera esanda: ofizialki 1917ko urriari hasitako ziklo iraultzailearen porrota ez datza soilik estrategia komunistaren desegitean eta estrategia hori gauzatu behar duen antolakuntza politikoa desagertzean, hau da, Masa Alderdi Komunistaren desagertzean. Horrez gain, porrot horrek berekin dakar gure mendean komunismoa pentsatzeko dagoen ezintasuna. Izan ere, hipostasiatu egin dira Urriko Iraultzaren kategoria politikoak eta ziklo hori ezaugarritzen zuen estrategia, “bere horretan” eta betirako sozialismoa izango balira bezala; eta bloke kapitalistaren gailentasun politiko kontingenteak soilik garaitu balu bezala, eta ez porrotera eramane zuen kontraesana bere barronean eramateak.

Porrot horren ondorioz, aurreko mendeko errepresentazio komunista gotortu egin zen, bere ikuskera historiko eta taktika politiko bereziekin; eta posibizatu egin ziren historikoki “komunismoaren printzipio” gisa zehaztutako borrokak, betirako. Baina, gainera, gotortze horrek porrota errepikatzea besterik ez du esan nahi. Zalantzarik gabe, iraultzaren kontrako praktika bat da, eta gogor salatu behar da: lehenik, komunismoak aurrera egin dezan beharrezkoak diren kritika-aukerak oztopen dituelako, jada errezeta eta definizio sinpleetara murriztuta baitago komunismoa –kapitalismotik ezertan bereizten ez diren egoeren multzo bat da komunismoa–; eta, bigarrenik, eskasia-egoera bat positibatzen duelako –ez gara miseria ekonomikoaz ari, baizik eta ezintasun politikoaz, edo iraultzaren eta bere emaitzen kolapsoaz–, hau da, iraurarazi beharreko puntu positibo bihurtzen du proletargo iraultzaileak ingurune historiko berezi batean gaitasunen garapenarekin lotuta izan dezakeen ezintasuna.

Ofizialki 1917ko urrian hasitako ziklo iraultzailearen porrota ez datza soilik estrategia komunistaren desegitean eta estrategia hori gauzatu behar duen antolakuntza politikoa desagertzean, hau da, Masa Alderdi Komunistaren desagertzean. Horrez gain, porrot horrek berekin dakar gure mendean komunismoa pentsatzeko dagoen ezintasuna. Izan ere, hipostasiatu egin dira Urriko Iraultzaren kategoria politikoak eta ziklo hori ezaugarritzen zuen estrategia, “bere horretan” eta betirako sozialismoa izango balira bezala; eta bloke kapitalistaren gailentasun politiko kontingenteak soilik garaitu balu bezala, eta ez porrotera eraman zuen kontraesana bere barrenean eramateak

Laburbilduz, Urriko Zikloaren bueltan, komunismoari aurrez aurre kontra egiten dion trantsizio-etapa gisa hartu da sozialismoa; hots, ekoizpen-modu kapitalistaren eta klase-menderakuntzarako instituzio politikoen abolizioari kontra egiten dion trantsizio-etapa gisa. Eta hori horrela da kritikatzeko ari garen ikuskera orokortuak, Urriko Zikloa kritikoki aztertu beharrean, definizio estatiko bat lortu nahi duelako komunismoaren aldeko klase-borrokaren etapa dinamiko batetik, eta ulertu beharrean trantsizio-etapan komunismoa lortzeko lehia historikoki zehaztuta dagoela, eta berau garatzen den egoera historiko bereziak mugatzen duela. Azken finean, “sozialismoa honakoa da...” esaldiak atzetik dituen errezetak eta definizio multzoa, orokorrean, porrota modu bikainean azaltzen duten kategorien enuntziatu luze bat dira, eta ez, esaldi horiek esaten dituztenek nahi duten bezala, komunismoaren aukerak eta indarrak.

Izan ere, zenbait ikusmoldek, ekintzak eta instituzioi egoera jakin bati buruzko zentzu sozialista bat badute ere, horiek ezin dira bere horretan sozialismotzat jo, leku eta denbora orotan. Aitzitik, sozialismoaren aldeko borrokarekin berez lotzen diren heinean soilik hartzen dute zentzu sozialista bat, eta, beraz, borroka horretan aurrera egiteko balio dute. Hala ere, borrokaren beroan instituzio jakin batzuk instituzio sozialistatzat jotzea, nahiz eta forman ez ziren ezertan bereizten instituzio kapitalistetatik, berez ulertzen da: trantsizio-aldia borroka- eta disputa-aldi bat da fronte guztietan, baita esanahiarenean ere. Eta instituzio horiek, forman kapitalistak izan arren, instituzio delegatuak eta ia autoinposatuak ziren heinean, gaitz txikitzat jotzen ziren prozesu handiago baten barruan; komunismoaren aldeko borrokan, alegia. Gailentzen zena Alderdi Komunistaren estrategia zen, eta horatik zetorren instituzio bakoitza estrategia horren arabera eta estrategia horren babes gisa izendatzeko beharra.

Hemen kritikarako objektu gisa hartu den kontzeptuotik, sozialismoaren ezaugarri gisa nabarmentzen dira, besteak beste, Urriko Zikloa garatu zen herrialdeen egoera berezitik eratorritako ezintasun hauek:

1. Merkantzia- eta balio-ekoizpenaren iraupena (eta, beraz, ekoizpen-modu kapitalistarena);
2. Ekoizpen kapitalistatik eratorritako instituzio guztien iraupena, haien artean nabarmenenak Polizia, Estatu burokratikoak eta armada iraunkorra eta
3. Alderdi Komunistak eta Estatu Sozialistak bereizitako bi instituzio moduan irautea, nahiz eta, azken finean, lehenengoaren independentzia galtzearen ondorioz lotu zitzaizkion elkarri behin betiko, eta ez banaketa hori gainditzearen ondorioz.

Zenbaki honetan, ez dugu zehazki landuko hemen azaldutakoa. Ahalegin txiki bat besterik ez da XX. mendeko prozesu sozialista historizatzeke – ale honen luzerak eta Urriko Zikloaren analisiaren aurrerapenak baimentzen digutena bezain txikia –, hura ulertzeko bideak errazte aldera. Ulermen horrek berekin dakar prozesua hedatu zen egoera historikoaren berezitasuna nabarmentzea, eta, horren ondorioz, egoera historiko horri lotutako estrategia komunistaren berezitasuna nabarmentzea. Aurreko prozesu iraultzaileen analisen helburua ez da, inola ere, konponbideak zuzenean ateratzea. Aitzitik, irtenbide posibleak zeharka baino ezin izango dira ulertu, kritika iraultzaile gisa, eta ez, errebisionismoak egiten duen bezala, ondorio positibo gisa; hau da, errezeta moduan.

***Hala ere, borrokaren beroan
instituzio jakin batzuk instituzio
sozialistatzat jotzea, nahiz eta
forman ez ziren ezertan bereizten
instituzio kapitalistetatik,
berez ulertzen da: trantsizio-
aldia borroka- eta disputa-
aldi bat da fronte guztietan,
baita esanahiarenean ere***

Izan ere, Urriko Zikloan ekoizpen kapitalistari lotutako kategoriek benetan instituzio gisa iraun bazuten –eta are gehiago, ziklo horren gaur egungo ikuskeran irauten dute–, ez da sozialismoa hori delako, hori besterik ezin izan zelako izan baizik. Izan zenarekin etsia hartzea baino handiagoa izan behar du gure anbizioak, badakigulako izan zena porrot handiago baten ataria besterik ez zela izan; eta ez anbizio handiagorik ez zutelako, nahiz eta hori izan errebisionismoaren gaur egungo irakurketetatik ondorioztatzen dena.

Ildo horretan, zenbaki honetan, joan den mendeko estrategia boltxebikea eta ondorengo sozialismoaren garapena ulertzeko funtsezko hainbat elementu aztertzen ditugu. Eta, hain zuzen ere, iraultzaren garapenaren elementu garrantzitsu gisa aztertzen ditugu. Hiru etapa izango lituzke iraultzaren garapen horrek: boterea hartzea, sozialismoaren eraikuntza ekonomikoa eta sozialismoaren kolapso politikoa.

Alde batetik, Gerra Inperialistak teoria iraultzailearen garapenean eta boltxebikeen esku-hartze politikoa izan zuen garrantzia aztertzen dugu, baita 1917ko urriko azken kolpean eta ondorengo Gerra Zibilean (lurrealdearen kontrolaren lehia) izan zuena ere. Gaur egunera arte iritsi den iraultzaren kontzeptuak zuzenean edaten du egoera berezi horretatik; izan ere, kolpe armatu gisa ezaugarritu zen, hain zuzen ere, gerrak sortutako egoera politikoa hala ahalbidetzen eta eskatzen zuelako.

Bestalde, ekoizpen-indarren eta ekoizpen-harremanen dialektikari buruzko eztabaidari heltzen diogu, iraultzaren forma politikoa iraultza sozialaren une autonomizatu gisa edo ekoizpen-modu berri baten eraikuntza gisa aztertzea ahalbidetzen duen puntu nodal gisa. Horrela, bide horretatik, uler dezakegu zergatik ezin izan zuen bere prozesua burutu Iraultza Sozialistak, baina, batez ere, zergatik gertatu zen modu horretan eta zergatik hartu zituen instituzio horiek.

Azkenik, porrot politikoa gisa aztertzen dugu Urriko Zikloaren amaiera. Estatu Sozialisten deskonposizioa da horren irudi bizia, beren barnean sortutako burokraziak berak eragindakoa.


Balio dezala zenbaki honek lehen urrats gisa aurreko prozesu sozialista ulertu ahal izateko eta, era berean, aurrez aurre ditugun zereginak ulertu ahal izateko. ●

Gainezka egiteko tanta bat falta duen edalon tzi baten zirriborroa



10

Testua — **Jon Larrabide**
Irudia — **Zoe Martikorena**



Bi fenomeno hauen artean, mundu gerraren eta munduko iraultzaren artean, badago lehen begiratu batean ikusezina den elkarrekiko harreman bat; tamaina kosmikoko gertakizun beraren bi alde dira, optika zehatz baten pean bata bestearekiko korrelatiboak direnak, hauen jatorriari eta agertzeko moduari dagokionez

Ernst Jünger, *Mobilizazio Totala*

“Baina inperio bat nahi izanez gero egingo dizut,
Baina setio bat nahi izanez gero egingo dizut,
Baina naufragio bat nahi izanez gero, tori”

Gata Cattana, *Nada Funcionando*

1848ko iraultza olatuak kontuak kitatuko ditu proletariotzarekin, artean jaio berria eta plaza politikoan laguntzarik gabe jarduten hasia. Pasarte historiko horren ondotik, burgesia boterean pausatuko da, mendearen ekuatore aztoratu horren zatien gainean, gizarte kapitalistaren eta bere maneren ezarpenaren prozesu luzeak sortutako zatien gainean. Gizarte modernoaren bastioiak hasierako zesura odoltsuari esker existituko dira, eta horren gainean eraikiko dira. Apurka-apurka paisaia berri eta berriazko baten ingeradak irudikatzen hasiko dira, lurrunaren eta tximinia luzeen kearen gris trinkoak bernizatuak, berezko handitasunean kapitalaren eta haren gorabeheren mendetako kredo gordina laudatuko dutenak. Industria iraultzek lur emankorrenzako zimenduak jarriko dituzte, eta horien gainean haziko dira gizarte kapitalistak; horrela, munduan zehar sustraiak errotzeari ekingo diote, eta orduan erregealdi horri aurrekaririk gabeko hedadura eta boterea emango diote. Modu horretan, Europa, zeina XIX. mendearen hondarretan maila kualitatibo zen kuantitatiboan nekazaritza-jarduerak zedarritako ekonomiak dituzten herrialdeek osatua baitago, eraldaketa edo garapen industrialaren protagonista izango da, eta munduko garapen koordinada berriak arautuko ditu. Makineria eta industria handiaren garaia izango da, komunikazio eta asmakizunena.

Haren eskutik eta arau horiei jarraituz, forma hartuko du gutxika munduaren eraldaketa kapitalistak, hau da, horri berari eduki bateratua emateko ekinbide luzeak. Potentzia helduek periferiako herrialdeei garapenaren lasterketan parte hartzeko egindako gonbidapen amarrutsu eta ez bereziki adiskidetsuak batasun espezifiko bat emango dio munduari, lodiagoa, bakoitzari egokitutako tokiaren mugak garbi irudikatuko dituena. Bi piezatako muntadura: alde batean zentro inperialista, non gainontzeko aktoreek pibotatuko duten, batasun horren kausa eta ondorio izango da bere egite hutsean; eta, beste aldean gainontzekoak egongo dira, beren parte hartzea mundu mailako dinamika kapitalistan integratuko duten horiekiko subordinazioak mediatuak. Horrela, mende berria hasi aurreko azken hamarkadetan Europa ez da bakarrik guztia hasiko (eta bukatuko) den lekua izango, munduko lanaren banaketa berri horren osagarri zentrala ere izango da, bere hedapen programaren motore nagusia, alegia.

Lehen ekitaldiak, XX. mende luzea izeneko maisulanari hasiera ematen dionak, sentsazio berezia eskaintzen dio ikusleari haren protagonisten antzezpeneren bitartez; horiek baikortasunez blaitutako espiritu batek zeharkatzen ditu, zeina eroso baitabil hara eta hona begiak garapenaren ortzi mugan jarrita. Joko arau kapitalisten mundu mailako ezarpena, alde batetik, potentzia handi bihurtzeko titulua duten horietan isuriko eta hedatuko da, historiaren ringean titulua berresteko aukera emango baitzaie (askok ez dute gaudituko saiakera erabakigarri hori), eta, bestetik, halabeharrez, baita Kapitalaren desiren aurrean makurtu behar izan diren horietan ere. Kapitalak, ga-

rapen maila altua lortuta, nazioartean jardungo du -hori baita bere izatea-, eta lanaren munduko banaketan eroso jartzeko toki bat aurkitu nahi izango du. Edozein kasutan, aurrerabidearen ideal horrek antzezlanean atze-oihalaren funtzioa beteko du ekitaldi guztian zehar, izan modu endogenoan, izan mundu zaharretik ekarritako faktore forman.


Aitzitik, mendearen azken laurdena iristear egongo denean, zenbait elementu edo seinaleren agerpenak optimismo orokortu hori (herritarren masak ere harrapatzera helduko dena, haiek zenbait bizi baldintzaren hobekuntzarekin erosiz) era erabakigarrian zapuztuko du, eta horrek bide emango dio obra honek oinarri duen gatazkarantz zuzen joango den eraldaketa bati. Horrez gain, garai horretan zehar garatuko diren joera eta kontraesan guztiak katalizatuz eta kristalduz, dena lehertzeko aukera irekiko du. Kapitalaren aurrekaririk gabeko hedakuntza- eta sakontze-prozesu baten ondotik, lehen ekitaldi horretako oinarri ekonomikoak astinduko dituzten zenbait fenomenok, xake emango diote munduaren erdigunea Britainia Handian (bere merkataritza, bere finantzak) kokatzen zuen jokoaren dinamikari. Horrela, bigarren ekitaldian bestelako mundu bat ekarriko du, ekonomiek nork bere nazio-estatuen mugetara atzerantz egiteak eta bigarren ekitaldian beren-berena zaien xake jokoak ezaugarritua. Ekoizpenaren jarduera pizgarriak hura hipertrofiatuko du. Esaterako, Alemaniako zein Estatu Batuetako ekonomiek sekulako garape-

Kapitalaren aurrekaririk gabeko hedakuntza- eta sakontze-prozesu baten ondotik, lehen ekitaldi horretako oinarri ekonomikoak astinduko dituzten zenbait fenomenok, xake emango diote munduaren erdigunea Britainia Handian (bere merkataritza, bere finantzak) kokatzen zuen jokoaren dinamikari. Horrela, bigarren ekitaldian bestelako mundu bat ekarriko du, ekonomiek nork bere nazio-estatuen mugetara atzerantz egiteak eta bigarren ekitaldian beren-berena zaien xake jokoak ezaugarritua

na izango dute, beste herrialde batzuk prozesu horretara batuko dira (Errusia, kasu), eta periferiako herrialdeek ere nolabaiteko aurrerapena iradokiko dute norabide horretan. Edozein kasutan, zenbait zeinuk garapen kapitalistaren zeru oskarbituak ilunduko dituzte, eta atsekabea zabalduko dute gero eta gizarteko sektore zabalagoetan. Ez dira funtzionamenduaren sakoneko arauak izango estualdian egongo direnak, dekadentzian dagoen mundu sistema jakin baten errentagarritasuna baizik. Produktibitatearen hazkundeak prezioen beherakada eragingo du; horrek eragin negatiboa izango du nekazari zein merkatarientzian, eta halaber, ekoizpen kostuen egonkortzearen eta hortik gutxira gertatuko den prezioen beherakadaren arteko kontraesanak estutu egingo du kapitalista ugariaren lepoaren inguruko soka munduaren luze-zabalean.


Fenomenologia berri horrek beste modus operandi bat ekarriko du berekin. Mundua, ardatz britaniarraren inguruan bira egiteaz nekatuta, arrakalatu egingo da, eta beren buruen inguruan biratzeari ekingo dioten zatiek osatuko duten mapamundi fragmentatu bat garatuko da. Protekzionismoranzko olatu batek lehen mundua kolpatuko du, eta jada iraungitako librekanbioaren garaiari itxiera eman go dio (Erresuma Batua izango da salbuespena, haren ekonomia kanpoalderantz begirakoa eta kanpoarekiko dependentea den neurrian). Horren ondorioz, zentro inperialistako ekonomia nazionalak ordura arte ez bezalako protagonismoa berengantuko dute (maila indibidualean, baina aldi berean), eta nukleo solidoetan antolatutako dinamika kapitalista bat irekiko dute; dinamika horren oinarria periferiako herrialdeenganako subordinazio-harreman zuzen eta zeharkakoa izango da. Nazioarteko berrantolaketa hori ekonomia nazionalen mailan jazoko diren zenbait tendentzia berriren ondorioa izango da. Kapitalen konbinazio eta kontzentrazioak (joera moduan) zein lanaren antolaketa teknika berriek (taylorismoa, fordismoa) beste dimentsio bat emango diote Kapitalari, zeinaren menderakuntzak sekulako indarra hartuko duen.

90eko hamarkadako teloa altxatzean, hirugarren ekitaldia, dekorazioak berriro ere harrituko ditu pertsonaiak, bere urregorritzako distira eta ñabardurak tarteko. Industrializazio prozesu azeleratu bat egongo da berriro ere, nekazarien jarduerak eta ekoizpenaren garapen handiak bulztatuta. Forma nazionalenera bildutako ekoizpen kapitalistaren apetek eta proletario kondizioa hedatu eta sakondu izanak (Kapitalaren bizitzaren lehen mendeen berezko ezaugarriak) posible egingo dute merkatu nazionalen zabalpena, zeintzuek, industria kapitalistaren garapenaren eta lanaren antolaketarako metodo modernoekin batera, beste etapa bati emango baitio te bide. Etapa horrek merkantzien masa-ekoizpena du ezaugarri nagusi moduan (kontsumo gizarteen oinarria). Kapitalismoaren fase inperialista da hori, inperio kolonialen aroa. Hartan, inperio horiek munduaren eskala handiko kolonizazioa abiatu eta gorenera eramango dute, etxe barruko atazak amaitu ondoren. Estatuek arlo ekonomikoan gero eta gehiago esku hartzeak definitutako garai bat, letra larriz idatzitako politika ekonomikoarena, non kapitalen arteko konpetentzia arropa nazionaleraz edo neurri protekzionistaz jantziko den eta osagarri izango dituen hobekuntza sozialerako nolabaiteko tarte emango duten erreformak. Erreforma horien oinarrian periferiak bi hauekiko duen mendekotasuna izango da: zentroaren beharrak eta akumulazio kapitalistaren zabalpena, eskulan-eskaera aseztina duena. Tesuinguru horrek (inperio kolonialak, estatu aparatuen protagonismo handiagoa, industriaren garapena eta hirugarren sektorearen hedapena) atek irekiko dizkio klase ertain moderno baten garapenari; klase hori jada ez da jaioko landa-eremuan eta eskulangintza lantegietan (horien pisu erlatibo nabarmen jaitsi denez gero), baizik akumulazio kapitalistaren dinamika berrietatik.



Zentzu horretan, XIX. mendeko bigarren erdialdearen inguruan hitz egitea hamarkada horietan zehar gertatutako garapen kapitalistaren inguruan hitz egitea da. Baina, aldi berean, kontrako alderdiaren garapenez hitz egitea ere bada, hots, proletalگو iraultzaileaz eta haren formez

Mundu mailako eskala bereganatzerainoko joko-arau kapitalisten hedapena eta dominazio kapitalista saktetzeko prozesua ez da izango, hala ere, maitagarrien ipuina. Akumulazio kapitalistaren izaera esentzialki kontraesankorrak, aberastasunaren zein miseriaren metaketa dakarrenak, bizitzeko moduak zein hiltzeko erak inposatzen dituenak, prozesua bera partez osatutako prozesu bilakatzen du: errelatua eta bere korrelatua. Izan ere, partekako prozesu soil bat baino gehiago, parte antagonikoz osatutako prozesu bat da, halabeharrez borroka prozesu batean, edo, zehatzago esanda, klase borrokan aditzera ematen dena. Zentzu horretan, XIX. mendeko bigarren erdialdearen inguruan hitz egitea hamarkada horietan zehar gertatutako garapen kapitalistaren inguruan hitz egitea da. Baina, aldi berean, kontrako alderdiaren garapenez hitz egitea ere bada, hots, proletalگو iraultzaileaz eta haren formez.



1848ko iraultzek ideia garbiagoko, kontzientzia handiagoko proletalگو bat taularatuko dute; egitate horrek Manifestu Komunistan hartuko du gorputza, programa propio bat mahaigaineratuko baitu, nazioarteko proletalگوaren klase interesetan oinarritutakoa. Parisko Komunak, bere aldetik, praktikan lotuko ditu programa horren garapena eta forma politiko propio baten beharrezana, letra antzeztu ahal izateko. Masen kualifikazio prozesu horrek (joera hori klaseen iragazpen prozesuaren forman ezarriko da era berean)

burrunba eragingo du burgesiaren belarrietan; ondorioz, herri-klaseenganako beldurra sortuko zaio gizarteak nahi izanda edo nahi gabe (parte bakoitzaren ikuspuntuaren arabera) politikaren nolabaiteko demokratizazioz ibiltzen hasiak ziren garai batean. Edozein kasutan, ñabardurekin izan arren, prozesu hori era saihetsezinean ezarriko da, eta panorama politiko heterogeneo baina bereziki berri bat izango du emaitza. Langile klasea, zentro inperialistako hipertrofia espontzialaren ondorioz inoiz baino uga-

Alabaina, aparteko gertakizun horretan zentratu baino lehen, eman dezagun lerro hauetan itzulunguru txiki bat Errusiako lurralde hotzetatik, bide guztiek helburu duten Erroma den aldetik. Kapitalismoaren hedapen prozesuak mende erdialdeko Errusia ere harrapatuko du, nahiz eta agian egoikiagoa izango litzatekeen ustekabeen harrapatuko duela esatea. Errusia tsaristaren atzerapen estrukturalak aurrerapenarekin tupust egingo du. Krimeako gerra Errusiaren porrotarekin amaituko da, eta agerian utziko du Errusia oraindik aurrerapen kapitalistaren trenera igo gabe dagoela. Errusiak, ekonomikoki zein politikoki atzeratua zegoen aldetik, Damoklesen ezpata mehatxuka izango du bere potentzia kondizioaren gainean (batik bat bere tamaina ikaragarrian oinarritua), eta, ondorioz, ezinbestean pauso sarriz aurreratu beharrean suertatuko da. Hori lortzeko hainbat ahalegin egingo dituen arren (morrontza-lanaren abolizioa 1861ean; estatuak gidatutako industrializazio prozesua), Errusia estropezuka sartuko da munduko kapitalismoaren paradigma berrian, zentro inperialistarekiko desabantailan eta dependentzia egoera garbian. Alabaina, saiakera horiek ez dute lortuko Errusia tsaristaren eginbeharrak ezabatzea, eta Errusiako herriak gosea, pobrezia, desjabetza eta presio fiskal

handiak pairatzen jarraituko du. Ezinegon sozial hori handitzen joango den heinean, horrek, ordura arteko landa gune errusiarraren lurzoru emankorraz gain sustraitzeko beste substratu bat aurkituko du. Garai horretako industrializazio bultzadak proletarioen masa gero eta handiagoa sortuko du, kontzentrazio industrial handiak batura; apurka-apurka beren eginbehar historikoaren kontzientzia hartzen hasiko dira, eta urte horietan zehar jaioko diren espresio politiko ezberdinetan forma hartzen joango da. 1900. urtetik aurrera, ezinegon sozialaren bulkada gero eta agerikoago bilakatuko da; nekazarien errebolta eta greba orokorrek ekialdeko kolosoa higitzen hasiko dira. Errusia eta Japoniaren arteko gerran jasandako porrota izan zen urak gainezka egiteko behar zuen tanta.

1905 urtea ziztu bizian eszenaratu-ko da. 1905eko iraultzak Errusia tsarista desegonkortuko du lehen aldiz, langile mobilizazio handien, nekazarien errebolten eta indar armatuen beheraldiaren arteko konfluentzian. Hala ere, Errusian antzinako erregimena desarmatzeko prest egongo zen burgesiarik ez egoteak eta Errusiako proletarioaren gaztetasuneko inozentziak bide emango dio urte batzuetarako lasaitasun aurreiraultzaile bati. Interregno horretan, potentzia industrial eta herrialde nagusiki nekazaritzakoa izango da geure Fausto, potentzia inperial eta erdikolonia, abangoardia kultural (eta politiko) bat kulturaren barmen atzeratua. Parteen egiazko batasuna izango da Errusia, gizarte kapitalistaren izaera kontraesankorren adibide garbiena, fase inperialistaren kontraesan guztien adierazle eta sintesia. Dena egongo da detonagailua nork aktibatuko zain.

***Parteen egiazko
batasuna izango
da Errusia, gizarte
kapitalistaren izaera
kontraesankorraren
adibide garbiena,
fase inperialistaren
kontraesan
guztien adierazle
eta sintesia***

Edozein kasutan, astinaldi sismiko horrek arrakala berriak irekiko ditu panorama politikoan, apustu iraultzaile bat ernaltzen ikusiko dutenak: mundu gerra (inperialista) klaseen arteko gerra zibil bilakatzearen aldeko apustua

Gerraren itzalak mundu mailako eszenatokia obra honen ekitaldietan zehar ilundu arren, istorioaren une honetara ailegatuta, potentzial suntsitzai-leak protagonisten buruetatik uxatuko du gerra batek zorigaiztoko amaiera izan dezakeelako ideia. Edozein kasutan, garaiko gobernuak, boterez eta estatusaz mozkor, neurrigabeko lasterketa armamentistikoari ekingo diote. Aldi berean, nazio-estatuek gidatutako funtzionamenduak bloke-dinamika baterantz eboluzionatuko du, eta horrek, aliantza batzuk tarteko, Europa zatitu egingo du urte horietan. XX. mendearen lehen urteetan jazoko diren iraultzek eragin nabarmena izango dute zentro inperialistako oreka desegonkortzen, eta zenbait mugimendu bul-tzatuko dute politika internazionalaren taulan; mugimendu horiek eskala za-baleko gatazka bat sortuko dute, Lehen Mundu Gerra izenez ezagutuko dena. Kapitalaren izaeratik abiatuta sortuko

diren kontraesanek (Kapitalak, bere printzipioengatik, bere muga propioak baititu muga bakar), mende erdiz baino gehiagoz esponenzialki larriagotuek, eztanda egingo dute azkenean, mundu mailan heriotza eta suntsipena zabalduz lau urtez belaunaldi oso baten kontzientzia kolektiboa odol eta garrez markatuko duen gatazka batean.

Gerraren lurrikarak munduko kapitalismoaren karta-gazteluaren oreka hauskorra eraitsiko du, eta berekin eramango du II. Internazionala; haren testamentua bera osatzen duten alderdi ia guztiek gerra-kredituen alde hartuko duten posizionamenduarekin sinatuko du. Edozein kasutan, astinaldi sismiko horrek arrakala berriak irekiko ditu panorama politikoan, apustu iraultzaile bat ernaltzen ikusiko dutenak: mundu gerra (inperialista) klaseen arteko gerra zibil bilakatzearen aldeko apustua. Urriko Iraultzak eman-go du irteteko pistola-tiroa. ●








Izotza haustea: mende bateko iraultzaren epai historikoa egiteko analisi- elementuak


Testua — **Álex Fernández**

Irudia — **Axier Nuñez**



Guk hasi egin dugu obra hau. Bost axola noiz, zein
epetan eta zein naziotako proletarioek burutuko
duten. Garrantzitsuena da izotza hautsi dela,
bidea ireki dela, norabide zuzena adierazi dela

Lenin



Lehen agerpena bere
berehalakotasuna edo kontzeptua
baino ez da. Eraikin bat bere
zimenduak jartzean eraiki gabe dagoen
bezala, erdietsitako osotasunaren
kontzeptua ez da osotasuna bere horretan

Hegel

Oso ondo, sator zahar.
Ze bizkor haztakatzen
duzun!

Hamlet



1917ko iraultzaren eta 1924ko heriotza goiztiarraren artean, Leninek idazteko aukera izan zuen artikulua, gutun eta hitzaldi ugariak ideia bat azpimarratzen dute, ziur aski behar bezalako arretarik eman ez zaion ideia: “Aro berri bat hasi da historia unibertsalean” [1].

Horixe da behin eta berriz errepikatzen duena, eta ez da kontsigna soil bat. Leninek sostengatzen duen *tesia* funtsezkoa da iraultza boltxebikearen irakurketa materialista historikoa egiteko, ez eztanda sozial iragankor bezala ulertuta bakarrik, baizik eta, bereziki, klase-borrokaren jokalekuaren eraldaketa atzeraezin gisa. Leninek proposatutako marko kontzeptualaren bidez, proletariotzak klase iraultzaile gisa duen garapen-zikloaren epai historikoa ezar daiteke. Artikulu honen helburua da tesi horren suposizioak eta inplikazioak deszifratzea, Urriak eta horren ondorengo gertaerek – azken batean, XX. mendeko esperientzia komunistak, bere osotasunean– nola finkatu zituzten aurrerantzeko iraultza sozialistak garatzeko zimenduak; bestela esan, historia unibertsalaren gailurraren edo, tradizio marxistarekiko leialtasunez, haren hasiera autentiko eta egiazkoaren zimenduak.

Leninek sostengatzen duen tesia funtsezkoa da iraultza boltxebikearen irakurketa materialista historikoa egiteko, ez eztanda sozial iragankor bezala ulertuta bakarrik, baizik eta, bereziki, klase-borrokaren jokalekuaren eraldaketa atzeraezin gisa



Halabeharrez betiko ahanzturara kondaturiko gertakari gehien-gehienak ez bezala, historia unibertsala osatzen duten gertaerak gure espeziearen “kode historiko-genetikoan” ezarrita geratzen dira. Milioika ezusteko eta alferrikako fenomenok ez bezala, iraultza *sozial* batek giza praktikak duen aukera-eremua birkonfiguratu du, bere hedadura eta intentsitate osoan. Adibide bat jartzearen, jatorrizko metaketa deiturikoak, hau da, ekoizleen eta ekoizpen-baldintza objektiboen arteko bereizketa bortitzak, giza espezie osoari atzeraezinezko moduan eragiten dieten baldintza sozialak ezarri zituen, eta inork ezin die bere ondorioei ihes egin nahimen-indar hutsez. Horrek esan nahi du historia unibertsalak eduki bat barne hartzen duela zeinetara gizakiek ez duten nahita edo kontzienteki lotu beharrik eta giza praktika horrek ezartzen dituen arauari lotuta geratzen den. Marxek horrelako zerbait esan nahi zuen adierazi zuenean gizakiek beren historia egiten dutela, baina beti “zuzenean aurkitzen dituzten, existitzen diren eta iraganak utzi zituen zirkunstantzien pean” [2].

Leninek gertaeren norabidea aldatzen duten lurrikara historiko horien artean kokatzen du Urriko Iraultza, eta arrazoiz. Leninek iraultza-urte horiek


bizi izan zituen, eta haien berehalako emaitza izango zena gorabehera, urri gorriaren legatua ezin zen desegin garrantzirik gabeko kasualitate bat balitz bezala: mugarri bat ezarri zuen giza-kiaren garapenean. Gutxienez hiru ezaugarrik bihurtzen dute Urria, klase-borrokaren ziklo global gisa hartuta, hots, historia unibertsalaren fase berri baten lehen pauso moduan. Testuan zehar, hiru ezaugarri horiek aztertzen saiatuko naiz. Lehenik eta behin, proletarioak klase nagusi bilakatu zituen lehen aldiz, modu minimoki sistematikoki batean. Bigarrenik, boterea hartuz, proletarioak ekoizpen sozialaren subjektu kontziente bihurtu ziren. Hirugarrenik, proletariotzaren ofentsiba politiko-ekonomikoak zibilizazio-ordena alternatibo baten erreferentzia kultural bihurtu zuen komunismoa. Hiru alderdi horiek modu mugatuan edo partzalean bakarrik egin ahal izan zuten aurrera. Hortaz, beharrezkoa da adieraztea zein faktorek baldintzatu eta, azken batean, ezinezko bihurtu zuten programa komunista bere lehen saiakera historiko handian praktikan gauzatzea.

Azter dezagun, beraz, puntu horietako bakoitza. Komunismo edo ekoizpen elkartu gisa ezagutzen dugun garapen historikoko fasearen agerpena, lehenik eta behin, proletarioak klase dominante bihurtzean adierazi zen. Domeinu hori tenporalki ezegonkorra zen eta perfekzionamendu-prozesu bati lotuta zegoen; halaxe adierazten du, hain zuzen ere, klase-borrokak gizarte-garapenaren motorra izaten jarraitzeak baita proletarioek botere politikoa hartu ondoren ere. Zentzu horretan, botere politikoa hartzea – hau da, gutxienez estatu burgesa suntsitzea eta antolatutako proletariotzak indarkeriaren monopolioa konkistatzea – ordena sozial berria egonkortzeko premisa baino ez zen, eta ez ordena hori behin betiko finkatzekoa. Hala ere, burgesiari eta haren estatu-aparatuei indarkeriaren monopolioa borrokatzeak garai baten irekiera adierazi

zuen, non sozialismoaren eraikuntza ekonomikoa lehen aldiz berehalako zeregin gisa agertu zen. Areago, zeregin horretarako bitarteko nahikoak une horretatik aurrera baino ez zeuden – proletariotza iraultzailearen eskuetan kontzentratutako botere politikoa izanik bitartekorik garrantzitsuena –. Hori dela eta, Leninek proletarioen diktaduraren garrantzia azpimarratu zuen komunismoaren *sine qua non* baldintza gisa, programa historikotzat eta estrategia politikotzat hartuta. Programa historiko gisa, proletarioen diktadura aurreko historiarekiko inflexio-puntua gertatu baitzen Errusian; estrategia gisa, bere orainaldi politikoko klase-borrokaren puntu bihurtu baitzen.

Hala ere, burgesiari eta haren estatu-aparatuei indarkeriaren monopolioa borrokatzeak garai baten irekiera adierazi zuen, non sozialismoaren eraikuntza ekonomikoa lehen aldiz berehalako zeregin gisa agertu zen

Maila altuagoko ekoizpen soziale-rako trantsizioa pentsaezina edo deklarazio nominal soil bat baino ez da, trantsizio hori antolatzeko eta hedatzeko *modua* alde batera utzita; izan ere, proletariotzaren diktaduraren lehen adierazpen sistematikoaren eduki historiko-unibertsala da. Eduki horren beharrezko forma *botere sobietarren forma* da, alegia, proletarioak eta desjabetuen masak modu zentralizatuan eta organo demokratikoetan antolatzen dituzten organoen forma. Horiek sobiet izenez ezagutzen dira, “kontseilu”^[4] hitzaren errusierazko itzulpena. Botere sobietarraren forman, gizarteak lehen aldiz lortu zuen autogobernua, eta aparatu administratiboak ez ziren gehiago gizarteari inposatutako organo, mendekotasun eta erreprezioko organo; aitzitik, gizartearen beraren menpeko bihurtu ziren, bere interes objektiboen zerbitzura zeuden tresna. Ordezkariek behartuta zeuden kontuak ematera, edonoiz ken zitezkeen kargutik eta hautesleen esanetara zeuden hala eskatzen zuten ekoizpen sozialaren arlo guztietarako –adibidez, nolabaiteko maisutasuna edo espezializazio teknikoak eskatzen duten funtzioak, edo nahitaez norbanako kopuru txikiak bete behar dituztenak–. Horrek erantzukizuneko karguak dituzten horiek interes orokorreko zerbitzari soil bihurtzen ditu, eta ez botere bereziak izan eta potentzialki ustelak diren ordezkariek arbitrario –gaur egun enpresa bateko buruak, langilezainak edo zuzendariak diren bezala, edo eremu publikoari dagokionez, poliziak, epaileak edo politikariak–. Beraz, boterearen beraren morfologiaren eraldaketa botere proletarioa izatera igarozen, eta kualitatiboki bereiz zitezkeen alde aurreko edozein botere-modalitatetatik. Ildo horretan, gai publikoak kontseiluen bidez administratzeak demokraziaren forma erradikal bat zekarren berekin, hau da, forma burges eta elitista guztiz sozializatutako forman eraldatzea^[5].



***Botere sobietarraren forman,
gizarteak lehen aldiz lortu zuen
autogobernua, eta aparatu
administratiboak ez ziren gehiago
gizarteari inposatutako organo,
mendekotasun eta errepresioko
organo; aitzitik, gizartearen beraren
menpeko bihurtu ziren, bere interes
objektiboen zerbitzura zeuden tresna***

Lehen Mundu Gerraren ondorengo egoerak eszenatoki bat sortu zuen: munduan diktadura proletario bat egoteak klase nagusien eta langile-alderdien politikaren grabitate-zentroa mugiarazi zuen, azken horiek ere iraultzaren alde edo aurka agertze-
ra behartuta baitzeuden *modu ireki batean*. Hori izan zen sozialismoa bi hegaletan zatitu zuena –zatiketa hori duela zenbait hamarkada hasia bazen ere, jakin badakigunez–. Izan ere, gerra inperialista piztu izanak eta Errusian proletarioen diktadura baten presentziak ezinezko bihurtu zuen antzinako taktika sozialdemokrata: Kontinente Zaharrea zehar klaseen arteko liskar irekia zela eta, jada ezinezkoa zen indarrak pixkanaka eta modu baketsuan metatzen jarraitzea. Demokrazia burgesaren edo demokrazia proletarioaren arteko hautabidea, kapitalaren botere inperialistaren edo proletarioen botere iraultzailearen artekoa, edozein gizarte-eragileren bizitza politikoari gailentzen zitzaion ezinbestean. Orduan, beharrezkoa egin zen iraultzaren alde edo kontra egitea, iraultza ez baitzen

etorkizunerako postulatu edo helburua, baizik eta boltxebikeen proiektu praktikoan oinarritutako errealitate nabarmena eta berehalakoa. Horrela, modu beligerantean edo distantziakidean nazioarteko iraultza babesteari eta haren *programaren mende* jartzeari uko egin zioten sozialista guztiek erreakzioaren eta bere botere-aparatuaren alde egin zuten, militantzia iraultzailearen eta programa historikoaren aurka. Erreformismo sozialdemokrataren behin betiko desestaltze horrek berehalako eragin politikoa izan zuen –adibidez, mentxebikeak eta boltxebikeak aurrez aurre jarri zituen borroka bizia–, eta, horrez gain, esanahi historiko unibertsala ere badu: sozialdemokrazia, une horretatik aurrera, Kapitalarekin eta estatuaren indar errepresiboarekin esplizituki lerrotutako eragile bihurtu zen. Errealitate hori dagoeneko ez da frogatu behar –Marxen edo Luxenburgaren garaian oraindik ere frogatu behar zen bezala–: egitate burutua, eztabaidaezina eta atzeraezina da.

Errusiako iraultza eta XX. mendeko komunismoa historia unibertsalaren aurrerapen bihurtzen dituen bigarren ezaugarria da, hain zuzen ere, lehen aldiz planteatzen dutela klase-borrokaren fase honen oinarritzko zeregina: sozialismoaren eraikuntza ekonomikoa

Ikuspuntu horretatik hobeto ulertzen da Leninek behin eta berriz esaten zuena:

Marxista klase-borrokaren aitopena *proletarioen diktaduraren* onarpenera *hedatzen duena* baino ez da. Horretan datza marxista baten eta hala moduzko burges txiki (edo handi) baten arteko alderik sakonena. Frogaharri horretan kontrastatu behar dira marxismoaren benetako ulermena eta errekonozimendua. Eta ez da harritzekoa, Europako historiak langile-klasea gai horren aurrean jarri duenean, oportunistak eta erreformistak guztiak ez ezik, “kautskiano” guztiak ere [...] filistiar eta demokrata txiki miserableak izatea, zeinek proletarioen diktadura ukatzen baitute^[6].

Lehen diktadura proletarioa ezartzeak eta, ondorioz, klase-borrokaren taula horren inguruan berrantolatzeak, sozialisten batasuna haustearekin batera, proletarioen antolakuntza eguneratzeko beharra ekarri zuen. Horrela, une horretatik aurrera, antolakuntza horrek Internazional Komunistaren figuran aurkitu zuen bere formarik gorena, ofentsibako nazioarteko Alderdi Komunista gisa ulertuta. Hori proletarioen diktadura hedatzeko plataforma eta bitartekoa zen, eta ez soilik indarrak modu baketsuan metatzeko bidea —ordura arte Bigarren Internazionalak babestutako posizioa—^[7].

Edonola ere, ekoizpen-modu berri bat finkatzeko ikuspuntutik, botere politikoa hartzea ez zen nahikoa. Hala, proletarioen diktadurak eta, jakina, Internazional Komunistaren sorrerak ez zuten, berez, programa historikoaren gauzatzea ordezkatzeko. Proletarioen botere politikoak, izateko arrazoirik badu, Marxek behinola “gizartearen berreraikuntza ekonomikoa”^[8] izendatu zuen horretan bitarteko aktibo izatea baino ez da. Errusiako iraultza eta XX. mendeko komunismoa historia unibertsalaren aurrerapen bihurtzen

***Lanaren produktibitate handia handi
batek bakarrik ezaba ditzake gainlana
erauzteko eta klasea esplotatzeko eta
menperatzeko pizgarriak, ekoizpenaren
eta garapen sozialaren motor gisa.
Horregatik, lan-denbora beharrezkoa
ahalik eta gehien murriztearekin batera,
Kapitala gero eta alferrikakoagoa da
erreprodukzio sozialerako modu gisa***

dituen bigarren ezaugarria da, hain zuzen ere, lehen aldiz planteatzen dutela klase-borrokaren fase honen oinarrizko zeregina: sozialismoaren eraikuntza ekonomikoa. Hori da, *lan sozialaren* indar produktiboen garapena produkzio-harreman berri batzuen arabera, lan hori gizarteko kideen artean antolatze-ko modu berri bat adierazten dutenak.

Hala pentsatzen zuen Leninek berak ere: “[Esplotatzaileen gaineko] indarkeria iraultzaile honen oinarri ekonomikoa, bere bizitasun eta arrakastaren bermea, proletariotzak kapitalismoak baino *lanaren antolaketa sozial hobea*-goa praktikan jartzean datza”^[9]. Hori kontuan hartuta, botere sobietarraren bidezko gizartearen autogobernua aldi berean da helburu eta sozialismoaren eraikuntza ekonomikorako bitarteko. Helburu da metabolismo soziala modu demokratikoan baino ezin delako era kontziente eta arrazionalen arautu. Bitarteko da, ordea, indarkeria zentralizatzen duen edozein aparatuk, bere

indarrak ekoizpen-harremanen eraldaketaren zerbitzura jartzen ez baditu, azkenerako baldintza ekonomiko batzuk erreproduzitu dituelako, *botere sobietar* moduan duen artikulazioa desegingo dutenak, eta horrek gizartearen autogobernua eta, ondorioz, harreman ekonomikoen eraldaketa bera eragotziko lukeelako. Boterearen forma politikoa eta bere eduki ekonomikoa, neurri horretan, txanpon beraren bi aldeak dira, eta bere aurrerapenak zein atzerapenak eskutik helduta daude.

Marxek esan zuen bezala, “gizarte-egiturarik ez da desagertzen haren barruan sartzen diren ekoizpen-indar guztiak garatu baino lehen”^[10], Leninek esan zuen “lanaren produktibitatea da, azken batean, garrantzitsuena erregimen sozial berriaren garaipenerako”^[11]. Ekoizpen-indarren garapenik gabe, ezinezkoa da aberastasunaren forma kapitalistatik askatzea, lanaren produktibitate-maila jakin bat aintzat hartuta modurik egoki eta eraginkorra bezala betikotzen bai-

ta. Lanaren produktibitate handia handi batek bakarrik ezaba ditzake gainlana erauzteko eta klasea esplotatzeko eta menperatzeko pizgarriak, ekoizpenaren eta garapen sozialaren motor gisa. Horregatik, lan-denbora beharrezkoa ahalik eta gehien murriztearekin batera, Kapitala gero eta alferrikakoagoa da erreprodukzio sozialerako modu gisa. Horrela, lanaren eta bere produktuaren banaketa ekitatiboa –bakoitzaren gaitasunen eta beharren arabera^[12]– giza komunitateko kide guztiak antolatze-ko modurik eraginkorra eta arrazionalena da.

Iraultzaren bidez ezarritako eredu sozialaren errealitate efektiboa hasi berri den historiako aro berri baten atzeraezintasunaren zantzua da. Gainera, kapitalismoaren arrazionaltasun historikoaren marjinaren agorpena adierazten du, eta horren iraungipena ez da deklaratu behar soilik, baizik eta bide praktikoaren bidez frogatu behar da

Ekoizpen-indarren garapenak *alferrikako* bihurtzen du gainlanaren erauzketa, ez soilik bidegabe edo doilor. Bestela esan, bidegabe bihurtzen da, bai ikuspuntu moraletik, bai historikotik; hau da, azken batean determinatzailea eta erabakiorra den ikuspuntutik. Zientziaren aplikazio teknologikoa eta kontzienteki erregulatutako makineria-sistema gizakia baino gehiago eta hobeto ekoizten hasten denean, gizakiak lan-prozesuaren faktore bizi gisa duen funtzioa baztergarria eta are kaltegarria izaten hasten da, eta, hala, baita haren esplotazio ekonomikoa ere, produkzio-tresna gisa. Komunismoak joera bat burutu eta gauzatu besterik ez du egiten, ekoizpen kapitalistan inplizituki jarduten duena gizartea proletarizatzen denean, gainpopulazio erlatiboa handitzen denean eta erreserbako industria-armada handitzen denean.

Desjabetuak klase dominante gisa antolatzearekin batera, errepublika sobietar gaztearen meritua ez dazta lanaren produktibitatea sekulako epean igotzean, baizik eta zeregin hori kolektiboki eta kontzienteki planteatzean, hau da, zeregin hori planteatzen eta egikaritzen den *moduan*. Kapitalismoak inkontzienteki eta zeharka bai-



no ez du hori exekutatzeke gaitasuna, alegia, jabe pribatuen arteko lehiaren bidez. Kontrara, sobietarren errepublikak bere proletario kontzienteen armadaren lankidetzan planifikatuaren bidez egin zuen. Botere proletarioaren eskura dauden ekoizpen-tresnen antolaketa zentralizatuak, lan sozialaren organoak erlazionatzeko modu berri bat gorpuzteaz gain, lanaren indar produktiboa handitzea ere suposatu zuen; izan ere, haren konbinazio antolatua, erabat sozializatutako lanak eta lankidetzan kontzientek aurrezpena eta

ekonomizazioa ekarri zituen, gaitasun horien enplegu desantolatuarekin konparatuz: “[...] lankidetzan-modua [...] ‘indar produktibo’ bat da”^[13], eta hori bera bihurtu zen Errusiako lurraldean langile kolektiboa, botere sobietarraren zuzendaritza zentralizatuaren pean tresna bateratua zen heinean. Bai berehalako lan-prozesuaren antolaketari dagokionez, bai prozesu historikoaren azelerazioari dagokionez, boltxebismoak Marxen epaiaren egia frogatu zuen: “klase iraultzailea da indar produktibo handiena”^[14].

Botere sobietarrak eta sozialismoaren eraikuntza ekonomikorako saiakerak mundu osoko proletarioentzat eredu edo erreferentzia egiaztagarri bihurtu zuten komunismoaren programa historikoa. Iraultzaren bidez ezarritako eredu sozialaren errealitate efektiboa hasi berri den historiako aro berri baten atzeraezintasunaren zantzua da. Gainera, kapitalismoaren arrazionaltasun historikoaren marginaren agorpena adierazten du, eta horren iraungipena ez da deklaratu behar soilik, baizik eta bide praktikoaren bidez frogatu behar da. Horrek joan den mendeko komunismoaren garrantzi historiko-unibertsalaren ezaugarrietako hirugarrena sartzen du: bere berehalako konkista politiko eta ekonomikoek iraganeko porrotak konpontzen dituzte, etorkizuneko konkistak proiektatzen dituzte, eta, horrela, egungo aukeren tartea zabaltzen dute. Komunismoak alternatiba zibilizatzaile baten erreferente kultural gisa modu objektiboan indarra hartzeak esan nahi du alternatiba horrek praktikan erakusten duela bere ezaugarri diren arauak inposatzeko eta normalizatzeko gaitasuna, halako moldez non berez onartzen baita, kanpoko inolako inposaketarik gabe, gizarte-erakundearen sistema berriaren legitimitatea.

Zentzu horretan esan daiteke Urriak komunismoaren normalizazioa ekarri zuela –baita bere naturalizazioa ere– alternatiba zibilizatzaile gisa, eta, hala, hau Hegelek *Geist* edo “espíritu” gisa ulertzen zuen horren aurrerabidean etapa berri gisa sartzerara behartuz. Komunismoa nola edo hala saihetsezina zelako ideia guztiz zabaldua zegoen garai hartan, eta hori plano kulturean gauzatutako ofentsibaren ikuspuntutik azal daiteke: imajina daitekeen horren eremua, posible denaren eta ez denaren multzoa antolatzen duten arauen sistema, gizartearen erabateko eraldaketaren ortzi-mugak definitzera igaro zela. Areago, errealitatearen errepresentazioa, soilik intuitiboa edo teorikoki sofistikatua, ideologikoa edo zientifikoa, iraultzak botere historiko erreale gisa zuen presentziak definitutako esparru baten pean geratzen zen.

Atmosfera horrek bakarrik azal ditzake baieztapen hauek: “botere sobietarraren garaipena mundu osoan ziurtatuta dago. Denbora kontua besterik ez da”^[15]. “Ortzi-mugak” ikus daitekeenaren eremuari egiten badio erreferentzia, komunismoa ortzi-muga historiko gisa ezartzeak esan nahi du balizko gertaeren katea edo “ageriko” gertakarien katea gizarte-eredu goren baten hasieraren eta behin betiko ezarpenaren arteko urrats gisa soilik pentsa daitekeela. Behin iraultza boltxebikea gertatuta, historiak ez du zentzurik iraultzaren Errusiako hasierako garaipenaren eta mundu mailako etorkizuneko Sobietar Errepublika ezartzearen arteko tartea gisa baino. Gainerako guztia osagarria da. Eta garai oso bateko baldintza hori, nolabait, atzeraezina da: “Kapitalaren aurkako borroka gogor eta latza arrakastaz hasi da Errusian. [...] Eta borroka hau Sobietar Errepublika mundialaren garaipenarekin amaituko da”^[16].



Bide hori hasi, hasi zen, baina, gertaera historikoen argitan, argi dago ez dela amaitu. Hala ere, esperientzia komunistaren arrakasta eta porrota ezin dira alde bakarretik ebaluatu. Bere arrakasta erabatekoa izan balitz, komunismoa birpentsatzeko eta praktikan jartzeko lana alferrikakoa izango litzateke, iraultzaren programa aspaldi burutua izango baitzen. Ordea, bere porrota absolutua izan balitz, proletarioen esperientzia iraultzailea zaku hautsian eroriko zatekeen, ondare objektiborik utzi gabe, askotariko tresna organizatibo, politiko eta kulturalik utzi gabe. Hain zuzen ere, tresna horietatik abiatuta eguneratu daiteke proletarioen ekintza-programa orainaldiko koiunturan. Iraultzaren historiarekiko jarrera haztatu hori da moralismo subjektibistara edo materialismo arruntenera desbideratzen ez den judizioa

ahalbidetzen duen bakarra: lehena kritika huts eta abstraktuan erortzen da, eta bigarrenak, berriz, alde aurretik edozein kritikaren posibilitatea baztertzen du. Esperientzia iraultzaileaz materialismo historikoan oinarritutako epai batek ez du ezartzen erabateko bereizketarik –moralismoak bezala– programa komunistaren –bere *adiera idealenean*– eta XX. mendean benetan egon zen komunismoaren artean, eta, aitzitik, ez ditu bi horiek erabat identifikatzen, zerbaiten errealitatea edo existentzia haren justifikazioarekin nahastuz –materialismo arruntak dogmatikoki egiten duen bezala–. “Desberdintasunaren batasun” horrek ahalbidetzen du iraultza proletarioaren lehen saiakera komunismoaren programa historikoaren adierazpen objektibo gisa ulertzea, bere azken helburuen lehen gauzatze arrazional gisa, eta, era

berean, adierazpen objektibo hori ebaluatzea, bere barneko muga eta gabezia guztien argitan, hau da, gauzatzea lortu ez zuen programa historikoarekiko kontrastean.

Gutxienez, iragan mendeko komunismoak ekarri zuen aurrerapen historikoaren hiru alderdi aztertu dira: proletarioen diktadura botere sobietarraren forman, ekonomia sozialistaren eraikuntza kontzientea eta iraultzaren erreferentzia kulturala garai oso baten horizonte zibilizatzaile gisa. Bukatzeko, hurrengo auziak argitu behar ditugu: batetik, zer zentzutan diogun XX. mendean programa komunistaren gauzatze eraginkorra mugatua izan zela; eta, bestetik, zergatik egin behar izan zien aurre haren garapena baldintzatu eta oztopatu zuten muga batzuei. Hau da, kritika materialista bat egin behar dugu: fenomeno edo prozesu baten mugak argitu, bere barne helburuen ikuspegitik. Kasu honetan, benetan existitu zen komunismoaren prozesua ebaluatu behar da komunismoaren programa historikoaren argitan, hau da, lehen prozesu horrek burutu ezin izan zuen programaren edo helburuaren argitan. Horretarako, berreskura dezagun gorago aipatutako Leninen baieztapena: “lanaren produktibitatea da, azken batean, garrantzitsuena erregimen sozial berriaren garaipenerako”^[17]. Jakina da, mendearen hasieran Errusiak gabezia bat zuela, hain justu, lanaren produktibitatearen garapen eskasa; horrek, gainera, Alemaniako iraultzaren mendeko bihurtzen zuen. Alemaniako iraultzaren porrot tragikoak errusiar iraultzaileak egoera batean jarri zituen non erabateko heroikotasunak bakarrik ahalbidetuko zuen boterean irautea. Garai hartan, indar guztiak bildu behar ziren subsistentzia-ekonomia izatera aipenas iristen zen eta herritarren bizitza erreproduzitzeko ia gai ez zen ekonomia bizirik mantentzeko, zeina mundu gerrak, gerra zibilak, barne erreboltek eta sabotaje amaigabeek suntsiturik baitzegoen.

Esperientzia komunistaren arrakasta eta porrota ezin dira alde bakarretik ebaluatu. Bere arrakasta erabatekoa izan balitz, komunismoa birpentsatzeko eta praktikan jartzeko lana alferrikakoa izango litzateke, iraultzaren programa aspaldi burutua izango baitzen. Ordea, bere porrota absolutua izan balitz, proletarioen esperientzia iraultzailea zaku hautsian eroriko zatekeen, ondare objektiborik utzi gabe, askotariko tresna organizatibo, politiko eta kulturalik utzi gabe

Egoera zail horrek salbuespenezko neurriak eskatu ziren. Lehenik eta behin, boterea ezinbestean esku gutxitan kontzentratzea: botere zentralizatu batek baino ezin zuen une horretan gizarte-deskonposizio osoa saihestu eta erreproduzio ekonomikorako gutxieneko baldintzak bermatu, baldin eta botere horren autoritatea zalanztan jartzen edo oztopatzen ez bazen. Horren ondorioz, botere sobietarra Alderdiaren eta bere kupula txikiaren instantzien gero eta menpekoago bihurtu zen, eta masek, zeinak ez baitziren erabat txertatuta boterean ^[18], denbora igaro ahala pizgarri gutxiago zituzten horretarako, erakunde publiko eta produktiboen zuzeneko kudeaketatik kanporatuak baitzeuden. Boterea modu bertikalago eta autoritarioagoan aplikatzeak, kasu askotan boterea erabiltzen zuen klaseko kideen borondatearen aurka, diktadura proletarioaren forma arrazionalaren hondatzea eta deuseztatena ekarri zuen. Horrela, botere sobietarra kontrolrik, ezeztagarritasunik eta mandatu inperatiborik –errepublika komunalaren forma definitzen duten elementuak– gabeko botere-forma batzuek ordezkatu zuten.

Hortik bigarren oztopo bat dator. Gorago esan bezala, metabolismoa naturarekin sistematikoki eta zentzuz erregulatzea, lana erabat sozializatzea, soilik posible da behetik demokratikoki antolatzen bada; hau da, ekoizleak plangintza ekonomikoaz eta lan-prozesua gauzatzear jakitun diren organo gisa agertzen badira. Estatu-Komunaren berezko mekanismo demokratikoak kontrol- eta diziplina-mekanismo bertikal bihurtu ziren unean, sozialismoaren eraikuntza ekonomikoa bera zaildu zen, ezinezko bihurtzeraino. Botere sobietar baten pean ez bada, ekoizleek ulertzen ez dituzten esanak obedituko dituzte, berarekin bat egiten ez duten lan-prozesu batean hartuko dute parte. Eurenak ez, baizik

Estatu-Komunaren berezko mekanismo demokratikoak kontrol- eta diziplina-mekanismo bertikal bihurtu ziren unean, sozialismoaren eraikuntza ekonomikoa bera zaildu zen, ezinezko bihurtzeraino. Botere sobietar baten pean ez bada, ekoizleek ulertzen ez dituzten esanak obedituko dituzte

eta metaketa-prozesu batenak diren beharrak asetzen dituzte, zeinaren birtartekoak eta helburuak nekez harmoniza daitezkeen ekoizpen komunistak eskatzen dituenarekin. Horrek guztiak, normala denez, ekonomia kapitalistaren dinamika bereizgarri guztiak pixkanaka indartzea dakar berekin, eta, azkenean, ekonomia horrek ohiko ereduaren arabera berreraikitzen du bere burua. Azkenean, ekoizpena da, berriz ere, ekoizleak menderatzen dituen, eta ez alderantziz.

Azkenik, eredu ekonomiko-politiko iraultzailea eredu kapitalista zahararekin parekatzeak borroka-esparru bat inposatu zuen. Horrela, zibilizazio-blokeen arteko lehia lehenengoarentzat izan zen kaltegarria, eta alde aurretik porrotera kondenatu zuen nahitaez indartsuagoa zen etsai baten aurrean, metaketa-eredu kapitalistak ezartzen baitzituen jokoaren arauak. Pixkana-

ka ilundu egin ziren komunismoaren erreferentzialtasun kulturala eta komunismoak produkzio kapitalistarekiko alternatiba zibilizatzaile gisa zituen ezaugarri bereizgarriak. Azkenean, agortu egin zen eraldaketa historikorako zuen potentziala, halako moldez non bere eredu soziala, azkenean, langile multzo zabalentzat ere arbuigarria baitzen –pentsa dezagun soilik ekialdeko Alemaniako, Hungariako edo Txekoslovakiako langileen matxinadetan-. Orainaldi historikoaren baldintzak errotik eraldatzeko aukera itzali egin zen, eta bigarren maila batean gelditu zen sortzen ari zen mundu berri baten espiritua moralizatzeke eta masetan sartzeko zuen gaitasuna; izan ere, azkenean, Ordenaren Alderdiaren eta haren fakzio sozialdemokrataren programekin erabat parekatutako programen mende jarri ziren proletarioak.






**Urriak historia unibertsalaren
geroko aurrerabidearen oinarriak
finkatzen dituen neurrian, XX.
mendeko esperientzia komunistaren
funtsezko elementuak lantzen eta
garatzen dituelako soilik izango
du zentzua. Esperientzia horrek
bestela arakatu gabe geratuko zen
aukera bat zizelkatzeko eta hari
forma emateko balio izan zuen**

Horrek guztiak esan nahi du ez zuela iraultza komunista baterako beharrezko baldintzak? Horrek esan nahi du agian akatsa sozialismoa ezartzeko eta Kapitalari halako erasoaldia egiteko ahalegina bera izan zela? Erreakzio sozialdemokrata-mentxebikeak (Kautsky eta baita Europako erreformismoaren buru eta ideologo asko) azpimarratu zuen Errusiak ez zituela iraultza komunista baterako baldintza ekonomiko-kulturalak betetzen. Haien ikuspuntutik, horrelako edozein saiakera alferrrikakoa zen eta ezinbestean porrot egitera kondenatua zegoen, eta boltxebikeek Kapitalaren aurka egingdako eraso-eredua, ikuspegi horretatik, eraso goiztiar, boluntarista eta historiaren joera objektiboen aurkakoa

zen. Leninen eta boltxebikeen jarrera, aldiz, historiaren subjektuak erantzukizuna bere gain hartu behar zuen, ez zen kanpotiko begirada hutsa izan behar. Erantzukizun horrek gizartea eraldatzeko erabakia ekarri zuen, ekin-tza horren balizko ondorioak alde aurretik ezagutu gabe. Leninek argi eta garbi aitortu zuen Errusiak ez zituela iraultza arrakastatsu baterako baldintzak betetzen, eta, horrez gain, mespretxu handienarekin trufatu zen bolbora deskubritzen ari balira bezala hartan tematzen zirenez. Hain zuzen ere, garapen historikoaren gidaritzaren beren gain hartuz sekula guztiz “emandakoak” izango ez diren baldintza batzuk sortuko dira, ekintza kolektibo antolatua- ren aurretik eta harekiko modu independentean. Marxista batentzat ez luke zentzurik baldintza horiek magikoki edo modu espontaneoan noiz sortuko zain geratzeak. Horrela islatzen du Leninek, bere hitz-jario bereizgarriarekin: “Gogoan dut Napoleonek idatzitua: ‘*On s’engage et puis... on voit*’, eta horrek, libreki itzulita, hau esan nahi du: ‘lehenbizi borroka serioa hasi behar da, eta gero ikusiko dugu zer gertatzen den’. Guk, 1917ko urrian, lehenbizi borroka serioa hasi genuen, eta gero garapenaren xehetasunak ikusi ditugu”^[19].



Proletariotza iraultzaileak sozialismoa eraikitzeko lan ikaragarria hasi zuen hura burutzeko baldintzak sortzen baino ez zeuden testuinguru batean. Bere arrakasta, partziala eta burutugabea izan arren, beste katebegi bat da baldintzen katean, eta, hemen eta orain, iraganean irekitako bide bati berriz ekitea ahalbidetzen dute ^[20]. Urriak historia unibertsalaren gero-ko aurrerabidearen oinarriak finkatzen dituen neurrian, XX. mendeko esperientzia komunistaren funtsezko elementuak lantzen eta garatzen dituelako soilik izango du zentzua. Esperientzia horrek bestela arakatu gabe geratuko zen aukera bat zizelkatzeko eta hari forma emateko balio izan zuen: proletariotza klase dominante bihurtzea botere sobietarraren bidez, kontseilutan antolatuta; ekoizpen-harremanen eraldaketa kontzientearen bidez sozialismoa eraikitzea; gizabanakoen praktika espontaneoan ezarri nahi den zibilizazio-ordena eraikitzea. Rosa Luxemburgek ederki gogoratzen digunez, “boltxebismoari dagokio botere politikoaren konkistan eta sozialismoa gauzatzeko arazoaren kokapen praktikoan nazioarteko proletarioen buru izan izanaren sari historiko betierekoa, Kapitalaren eta lanaren arteko mundu mailako lehia aurrerapauso handia eman izanarena. Errusian arazoa planteatu baino ezin zen egin. Ezin zen konpondu. Eta, alde horretatik, etorkizuna leku guztietan ‘boltxebismoari’ dagokio” ^[21]. Hitz horiek baliagarriak izaten jarraitzen dute, eta, gainera, denboraren joanak haien egia berretsi eta areagotu du. ●



ERREFERENTZIAK

[1] Lenin, V., (2000), *La Tercera Internacional y su lugar en la historia* [<https://www.marxists.org/espanol/lenin/obras/1910s/iv-19.htm>]

[2] Marx, K., (2000), *Luis Bonaparteren Brumairearen hemezortzia*, [<https://www.marxists.org/espanol/m-e/1850s/brumaire/brum1.htm#i>]

[3] “Proletalgoaren diktadura ere klase borrokaren aldi bat da, aldi saihetsezina klaseak deuseztatzen diren artean”. Lenin, V., (1971), *La cultura y la revolución cultural*, Progreso argitaletxea, Mosku, 91.or.

[4] “Zer da botere sobietarra? Zertan datza herrialde gehienetan oraindik ulertu nahi edo ezin duten botere berri horren esentzia? Egunetik egunera nazio guztietako langileak gehiago erakartzen dituen esentzia horren funtsa da Estatuak, lehen, aberatsek edo kapitalistek gobernatzen zutelako modu batera edo bestera, eta, aldiz, orain kapitalismoak zapaltzen zituen klaseek agintzen dutela lehenbiziko aldiz (eta, gainera, masan)” Lenin, V., (1981), *¿Qué es el poder soviético?*, Obras Completas, 38. liburukia, Progreso argitaletxea, Mosku, 238-239.or.

[5] “Erregimen sobietarra demokrazia maximoa da langile eta nekazariarentzat, eta, halaber, berekin dakar demokrazia burgesarekin apurtzea eta demokrazia mota berri bat sortzea, garrantzi historiko-unibertsala duena: demokrazia proletarioa edo proletalgoaren diktadura”. Lenin, V., (1971), *La cultura y la revolución cultural*, Progreso argitaletxea, Mosku, 161.or.

[6] Lenin, V., (1975) *El estado y la revolución*, Ayuso argitaletxea, Madril, 41.or.

[7] “III. Internazionalaren, hots, Internazional Komunistaren munta historikoa zera da: praktikara eramaten hasia dela Marxen kontsigna garrantzitsua, sozialismoaren eta langile-mugimenduaren garapen sekularren laburpena den kontsigna, kontzeptu honetan adierazia: proletalgoaren diktadura.”. Lenin, V., (2000), *La Tercera Internacional y su lugar en la historia*, [https://www.marxists.org/espanol/lenin/obras/1910s/iv-19.htm]

[8] Marx, K., *Salario, precio y ganancia*. [https://www.marxists.org/espanol/m-e/1860s/65-salar.htm]

[9] Lenin, V., (1971), *La cultura y la revolución cultural*, Progreso editoriala, Mosku, 89.or.

[10] Marx, K., (2001), *Prólogo a la Contribución a la Crítica de la Economía Política*, [https://www.marxists.org/espanol/m-e/1850s/criteconpol.htm]

[11] Lenin, V., (1971), *La cultura y la revolución cultural*, Progreso editoriala, Mosku, or. 100.

[12] Marx, K., (1979), *Glosas marginales al programa del Partido Obrero alemán*, Ediciones en Lenguas Extranjeras, Pekín (Beijing), República Popular China.

[13] K. Marx & F. Engels, (1959), *La ideología alemana*, Montevideo: Pueblos Unidos, Trad. al castellano de Wenceslao Roces.

[14] Marx, K., *Miseria de la filosofía*, Ediciones en Lenguas Extranjeras, Moscú

[15] Lenin, V., (1981), *Dos años de poder soviético*, *Obras Completas*, tomo 39, liburukia, Progreso argitaletxea, Mosku, 289-291.or.

[16] Lenin, V., (1981), *Dos años de poder soviético*, *Obras Completas*, tomo 39, liburukia, Progreso argitaletxea, Mosku, 289-291.or.

[17] Lenin, V., (1971), *La cultura y la revolución cultural*, Progreso argitaletxea, Mosku, 100.or.

[18] “Hitzez, aparatu sobietarra langile guztientzako dago eskuragarri, baina, praktikan, guztiok dakigunez, oso urrun dago horretatik [...] Izugarritzko lana behar da hezkuntzan, kulturen eta antolakuntzan”. Lenin, V., (1971), *La cultura y la revolución cultural*, Progreso argitaletxea, Mosku, 65.or.

[19] Lenin, V., (1971), *La cultura y la revolución cultural*, Progreso argitaletxea, Mosku, 204.or.

[20] Ideia hau Rosa Luxemburgek bere ohiko distiraz ikusi zuen Bernstein errebisionistaren aurka, baita 1905eko Errusiako Iraultza (lehenengoa) baino lehen ere: “Ezinezkoa izango da saihestea proletalgoak Estatuaren boterea ‘behar baino lehenago’ hartzea; izan ere, proletalgoaren ‘behar baino lehenagoko’ eraso horiek faktore bat dira, azken garaipena lortzeko baldintza politikoak sortzen dituenak, faktore zinez garrantzitsua. [...] Proletalgoak Estatuaren boterearen aurka egindako ‘behar baino lehenagoko’ eraso horiek beren horretan faktore historiko garrantzitsuak dira, eta behin betiko garaipenaren unea sorrarazten eta determinatzen dute. Ikuspuntu horretatik ikusita, langile klaseak botere politikoa ‘behar baino lehenago’ konkistatzearen ideiak prozesu sozialearen kontzepzio mekaniko baten ondoriozko absurdo politiko bat dirudi, zeinak klase borrokaren garaipenari klase borrokatik kanpo eta harekiko modu independentean finkatutako une bat ematen baitio”. Luxemburgo, R., (2009), *Reforma o revolución*, Biblioteca Pensamiento Crítico, Madril, 98.or.

[21] Luxemburgo, R., *La revolución rusa*, Akal, Madril, 2019, 71.or.






Sobietar esperientziaren inguruko eztabaida estrategiko baterako



Testua — **Pau Plana**



Lise Sarfatiren irudiak.

Lise Safarti argazkilaria Nizan hazi zen, Frantzia. Sorbonan ikasi eta graduatu zen 1979. urtean, eta Errusiako argazkilaritzari buruzko tesia egin zuen. Ondoren, hara joatea erabaki eta bertan bizi izan zen 1989tik 1998ra; Mosku, Norilsk eta Vorkuta hirietako argazki ugari atera zituen. Urte horietan, SESB desegin ondotik herrialdea suntsituta gelditu zen hartan, artista bisual honek Errusiako haurren eta nerabeen bizitzak dokumentatu zituen.





Artikulu honek ez du Estatu sobietarraren bilakaera historikoaren azterketa historiografiko zehatza egin nahi, iraultza sozialistaren kolapsoa une jakin batean kokatzeko helburuarekin. Hala izanik, ez ditugu boltxebikeek zentzu batean edo bestean hartu zituzten erabaki politikoak eta erabaki horiek eragin zituzten baldintza historiko espezifikoak zehatz-mehatz azalduko; aitzitik, prozesu iraultzaile sozialistak eskatzen dituen premisa historikoak eta antolaketa-modu zehatzak azalduko ditugu, sobietar esperientziaren mugen oinarriak eta bere garapena zentzu orokorrean zapuztu zuten zehaztapenak ulertzen saiatzeko, gure iritziz komunisten arteko eztabaida estrategikoa bideratu beharko luketen funtsezko elementuetako batzuk kokatuz.

Horretarako, gutxienez oinarrizko bi alderdi argitu beharko ditugu, lehendabizi, ulermen-marke orokor bat zehaztu ahal izateko; hau da, aldi horren azterketari ekiteko abiapuntu minimo bat beharko dugu. Alderdi horietako lehena, batzuen harridurarako, honakoa da: sobietar iraultza ez zen iraultza nazional isolatu bat izan, ez edukiari ez eta formari dagokienez, baizik eta mundu mailako iraultza proletarioaren *une* bat izan zen eta, modu orokorragoan, 1917 eta 1923 artean Europa astindu zuen prozesu iraultzailearen hasiera iragarri zuen pistola-kolpea –1927ra arte hedatu zen Europako mugetatik kanpo–. Horren haritik, gure ustez zinez derrigorrezkoa da azpimarratzea garai hartako Errusiako komunisten helburua, baita edozein marxista iraultzailerena ere, ez zela iraultzaren garaipena lortzea herrialde honetan edo horretan, baizik eta nazioarte mailako proletarioen garaipena lortzea. Nazio mailako garaipenak mundu mailako iraultzaren uneak edo *atalak* baino ezin ziren izan, eta iraultza horrek gutxienez herrialde aurreratu batzuetan nagusitu behar zuen mundu osoan hedatzen jarraitu ahal izateko ^[1]. Izan ere, Kapitala globalki artikulatutako gizarte-harreman bat izanik, hau da, guztia bere logiketan subsumitzen duen mundu mailako sistema ekonomiko bat izanik, ezin da planteatu iraultza sozialistarako erabat internazionala eta internazionalista ez den beste forma eta edukirik. Boltxebikeek aspalditik zekiten hori.

Bigarrenik, eta, hain zuzen ere, Kapitala harreman sozial bat delako –eta ez bizitza politikotik bereiz dezakegun kanpoko gauza bat–, boltxebikeentzat ez zen sekretua iraultza proletarioa gizarte-harremanen erabateko eralda-

ketan oinarritu behar dela eta ez dela gobernu-aldaketa edo “estatua hartzeko” ekintza hutsean ere oinarritu behar. Marxen garaitik jakina zen Kapitalaren boterearen funtsa ez dagoela ez parlamentu nazionalean, ez beste ezein erakunde demokratiko burgesetan ere; ez dagoela komunikabideen “adostasunean” ezta aparatatu burokratikoko-militarraren “bortxan” ere; kontrara, bazekiten boterea nagusiki *soziala* dela, hau da, klase-harreman batean oinarritzen dela, ekoizpena eta metabolismo soziala osorik antolatzen dituen. Horregatik, nazioartekoa izateaz gain, zuzeneko ekoizleen autoantolaketan masiboko prozesu bat izan behar da iraultza eta, prozesu horren barruan, gizarte-harreman berrien enbrioi-formak hedatu behar dira, hau da, ekoizleen elkartze askea, lan zuzenki soziala garatzeko baldintza gisa. Eta, arrazoi beragatik, iraultza sozialista edo proletarioa egitea proletarioen beraien lana izan behar da, beren ekintza masibo kontziente eta politikoki antolatuarena, eta ez elite edo gutxiengo zuzendari batena. Hori da, diogun bezala, marxismoaren oinarria, pentsamendu politiko boltxebikearen muin teorikoa.

Hori esanda, ezin gaitu harritu Leninnek haurren ergelkeriatzat jotzea eta “ideien nahasmen sinestezin eta konponezin” bati lotzea “alderdiaren diktadura” “buruzagien diktaduratzat” (edo gutxiengoaren gobernutzat) saltzeko asmoa, diktadura proletarioarekin (edo masen gobernuarekin) aurkaritzan ^[2]. Alderdi-forma eta proletarioen botere antolatua bata besteari kontrajartzen saiatu zirenen dikotomia faltsuaren aurka, buruzagi boltxebikeak lehenengoaren behar historikoa azalduko zuen bigarrenaren forma zehatz gisa, esanez gobernu proletarioa (edo sozialista), lehen instantzian, “alderdiaren gobernuaren” baliokidea zela.

Ezin da planteatu iraultza sozialistarako erabat internazionala eta internazionalista ez den beste forma eta edukirik

Hala ere, eta Leninen iritzia edozein izanik ere, baieztapen horren baliozkotasuna da Alderdia –eta ohartu letra larriaz– ez duela jotzen gutxiengo batek osatutako gidaritza iraultzaile baten antolaketa politikotzat, baizik eta klase-mugimenduzat *bere osotasunean*, hots, antolatutako eta botere politikoan eratutako proletariotza gisa. Horregatik, letra xehez baino ezin da izan eskuarki “alderdi” deitu izan zaiona, hau da, abangoardiako alderdi proletarioa. Baina hori ez litzateke izan beharko klase-mugimendutik *bananduta* dagoen edo gehiago edo gutxiago *lotuta* dagoen gauza desberdin bat. Aitzitik, abangoardiako alderdi proletario batek klase-mugimenduaren oinarritzko elementu gisa bakarrik mereziko luke izen hori, eta zehazkiago, proletarioen autoantolaketa batasunaren adierazpen *sintetikoa* den aldetik, masa-mugimendu estrategiko eta demokratikoki zentralizatu baten forma politiko kontzentratu gisa. Alderdia letra xehez, modu horretan, ez da “buruzagien alderdia”, ez eta kanpotik eratutako abangoardia dirigista bat ere, baizik eta Iraultzaren Alderdiaren forma laburtua, proletarioen klase-mugimenduaren zuzendaritza politiko-estrategiko bateratua.



Beraz, iraultza sobietarraren muga historikoei, sozialei eta politikoei buruzko eztabaida probetxugarri batek ikusi beharko luke alderdi boltxebikea zein neurritan izan zen “mugimenduaren batasunaren adierazpen sintetikoa”, edo, beharrezkoa bada, zein neurritan ezin izan zen izan, eta ea muga horiek zerikusirik izan zuten noraez burokratikoarekin eta hura “buruzagien alderdi” despotiko bilakatzearekin.

BOTERE PROLETARIOAREN ALDERDI-FORMARI BURUZKO OHARRAK

Hala ere, Alderdi-formaren esperientzia boltxebikea argitzeak –edo, gutxienez, horretarako abiapuntu bat jartzeak–, botere proletarioaren forma trantsizionala den aldetik, bere oinarri unibertsaletako batzuk esplizitatzea eskatzen du. Alde horretatik, lehenik eta behin, gorago aipatu dugun dilema faltsuaren zergatia azaldu behar da. Marxismoarentzat, Alderdiaren diktadura iraultzailearen behar historikoi aurka egiteak esan nahi du proletario guztien autoantolaketa politikoa izan beharko litzatekeela gobernu sozialistaren lehen forma; hau da, Alderdi masa guztien gobernu zuzena izan behar dela, guztiak ere ekoizpen sozialaren administrazio eraginkorrean antolatuta eta politikoki inplikatur. Hori

horrela izanik, proletarioek ezingo lukete beren botere politikoa inposatu eta, ondorioz, ezingo lukete burgesia- ren boterea eraitsi, harik eta frakzio proletario guztiak masa-organismoetan sartu eta haietan funtzio politiko eraginkorrak hartu arte. Orduan soilik ahalko litzateke egin benetako iraultza sozialista, benetako masa-gobernua ekarriko lukeena. Horrek, bistakoa denez, esan nahi du proletario guztiak modu bateratu eta independentean antolatu ahalko liratekeela bidean erreakzio burgesik basatiena aurkitu gabe; hau da, autoantolaketa prozesu hori ez litzateke gertatuko klase-borrokaren intentsitatea igoz eta horrek ekarriko lukeen erabateko gerrako agertoki baten bidez. Hala, Alderdi-forma ukatzeak –agente iraultzaile gisa eta, aldi berean, gobernu sozialistaren jatorrizko egitura gisa– iraultza gertaera leherkor baina nagusiki baketsu moduan ulertzen duen tesira garamatza zuzenean, non biztanleriaren % 99 “batera” altxatuko litzatekeen % laren aurka.



***Hala ulertuta, modu marxistan,
letra larriz idatzitako Alderdia ezin
da izan klasearen autoantolaketa
prozesu horren garapen-maila bat
besterik; zehazkiago, garapen-
maila bat zeinean, heltze-puntu
horretara iritsita, saihetsezina izango
bailitzateke gerra zibil iraultzaile bat***



Horrek, esan bezala, esan nahi du proletarioen autoantolaketa kontzientzia-hartze abstraktu baten bidez gertatzen den zerbait bezala ulertzen dela, eta ez, modu marxistan, gorakorra den klase-borroka prozesu baten bidez, zeinetan proletarioek burgesiari bizi-bitartekoen egiazko kontrola borrokatzen dioten progresiboki. Hala ulertuta, modu marxistan, *letra larriz* idatzitako Alderdia ezin da izan klasearen autoantolaketa prozesu horren garapen-maila bat besterik; zehazkiago, garapen-maila bat zeinean, helitze-puntu horretara iritsita, saihetsezina izango bailitzateke gerra zibil iraultzaile bat, terminoaren zentzurik indartsuenean eta fatalistenean. Eta, logikoa denez, botere burgesa alboratu den tokiko subjektu gobernaria Alderdian autoeratutako klasearen zatia izan beharko litzateke nahitaez, eta ez, hasieratik, proletario guztien multzoa.

Hala ere, horrek Iraultzaren Alderdia (edo Alderdi Komunista) botere sozialistaren trantsizio-forma gisa behar historikoa dela baino ez digu adierazten eta, hala izanik, oinarritzko markatzaile batzuk ezartzea ahalbidetzen digu garapen hori sobietar matxinadaren testuinguru historikoan arakatzeko orduan. Hala ere, oraindik argitzeke dago boltxebikeen liderra gehien asaldatzen zuen gaia, hau da: abangoardiako alderdiaren beharra, hemen “*letra xeheko alderdia*” deitu dioguna. Hori argitzea erraza litzateke, klase-mugimendu estrategikoki zentralizatu batek bere zuzendaritza estrategikoa gauzatzen duen egitura zentralizatzaile bat eskatzen duela ulertzea bezainbeste. Antolaketa modu horri “abangoardiako erakunde”, “koadroen alderdia” edo, nahi izanez gero, “iraultzaile profesionalen taldea” dei geniezaioke, eta izen horien guztien pean ere ez litzateke *instantzia* bat baino izango, Alderdian eraturako klase-mugimenduaren zati banaezina.

Egitura zentralizatzaile hori, esan bezala, buruzagien autoritarismo eta dirigismo grinaren meneko izatetik urrun, klase-borrokaren garapenak berak ezarritako behar bat baino ez da; izan ere, proletarioen autoantolaketa prozesuak funtzio berezi batzuk betetzea eskatzen du, ez dagozkienak zuzenean fronte edo masa-gune bakoitzaren zeregin partzialei, baizik eta mugimendu osoari, haren orientazio politikoa eta estrategikoa orokorrari eragiten baitiote. Horregatik, Alderdiak batasuna eta zentzu estrategikoa ematen dizkion bizkarrezur bat eduki behar du, koadroen sistema hedatzen duen barne-egitura bat; hau da, bitartekotza politikoa-organizatiborako sare bat behar du, mugimendua modu zentralizatuan artikulatzen duena, harik eta masa-fronteetara eta antolakundeetara, erakunde politikoetara eta botere proletarioaren egituretara iritsi arte, haiak osatzen baitute Alderdiaren oinarria eta indar materiala.

Nolanahi ere, eta Leninek defendatzen zuen eredu unibertsala hori otezen alde batera utzita, guretzat interesgarriena zera da: Alderdi-forma osatzen duten elementuen zirriborroak iraultza sozialistaren auzi unibertsalen aurrean jartzen gaituela, eta horien inplikazio sakonak esperientzia sobietarraren muga paradigmaticoki gisa adierazi zirela. Izan ere, agerikoa denez, funtzio bereziak betetzeko, ikuspegi tekniko-intelektualetik, gaitasun teoriko eta praktikoa berezi batzuk behar dira, proletarioek borroka kolektiboaren, antolaketa eta militantzia politikoa iraultzailearen bidez soilik eskura ditzaketanak. Gainera, lanaren banaketa sozialak “talentuen” aniztasun eta aldakortasun handia eragiten du klasearen barruan eta, ondorioz, proletarioen abiapuntuko baldintza objektibo zein subjektiboak erabat desberdinak dira proletariotzako sektore batetik bestera, bai borrokari eta antolakuntzari dagokienez, baita gaitasun berezi horien garapen potentzialari dagokionez ere. Baina, diogun moduan, iraultza sozialista, kontzienteki antolatutako proletariotza –eta ez espezialisten gutxiengo bat– bizitza sozialaren ekoizpen- eta erreproduktzio-bitartekoez jabetzea da. Horrek, beraz, eskatzen du Alderdiaren eraikuntza –eta, ondoren, Estatu sozialistarena– ez dadila mugatu proletarioak klase-erakunde eta klase-organismoetan sartzera haietan parte-hartze formala soilik bermatuz,

hau da, funtzio berezien kontrolerako eta jarraipenerako mekanismo demokratikoen bidez parte hartzea; baizik eta nahitaez inplikatzeko du prozesu eraginkor baten bidez masak modu eraginkorrean trebatzea. Hain da horrela, ezen Estatu sozialistaren eraikuntza –Alderdiak garatutako oinarrien gainean– eta haren ondorengo desagertzea, trebakuntza masiboko prozesu hori ahalbidetzen duten bitartekaritzen hedapen progresiboaren baliokide baitira, hau da, gizarte osoaren gaitasun indibidualen garapen oso eta askearen baliokide, “lan intelektuaren eta esku-lanaren arteko oposizio esklabizatzaile”^[3] zimenduetaraino apurtzearena. Hori da, azken batean, komunismorako trantsizioaren gakoa: zuzeneko ekoizleak giza metabolismo sozialaren kudeaketan eta zuzendari-tzan erabat sartzea, edo, bestela esanda, gizabanakoak ekoizpen sozialaren askotariko premietarako erabat prest egotea, non funtzio sozial desberdinak txandakatzen eta ordeztan diren^[4].

Beraz, iraultza sozialistaren baldintza historikoen eta sozialen eta forma politikoa zehatzen azalpen- eta argipen-puntu honetara iritsita, badugu nahikoa elementu iraultza sobietarra modu ezabaezinean markatu zuten mugen lehen zirriborro bat egiteko.

Alderdi-forma osatzen duten elementuen zirriborroak iraultza sozialistaren auzi unibertsalen aurrean jartzen gaituela, eta horien inplikazio sakonak esperientzia sobietarraren muga paradigmatico gisa adierazi zirela

SOBIETAR ESPERIENZIAREN MUGEI BURUZKO OHAR BATZUK

Ohiko moduan, azken atal hau oinarrizko bi premisa historiko kokatuz hasiko dugu:

1. 1910eko hamarkadan, Europan, proletariotza Iraultzaren Alderdi gisa eratzeko baldintzak zeuden.

2. Europako proletarioak politikoki artikulatzeko nazioarteko prozesu horren markoan, Errusiako mugimendu proletarioak Alderdiaren sekzio moduan heldutasun politiko eta organizatiboa lortzeko baldintzak ere bazeuden. Hain zuzen ere, nazioarteko prozesu horren partikula gisa garatzean, eta ez modu isolatuan, posible zen Errusiako formazio sozialaren bilakaera historikoak –hainbeste aipatzen den “atzera- pen” ekonomiko, politiko eta kulturalak– programa historikoari ezartzen zizkion mugak “gainditzea”.

Dena den, garai hartako Errusiako kapitalismoaren berezitasunen artean, dagoeneko aski ezagunak eta zehaztuak diren ezaugarri edo baldintza “mugatzailleak” ez ezik –hots, nekazaritza-harremanen hedadura, antzinako ekonomia-erregimenaren hondarrak, nekazarien eta landako erdi-proleta-

rioen egoera eta abar–, elementu zinez “aurreratuak” ere badaude, hala nola hauek: herrialdeko zenbait zonatako industria- eta kreditu-kapitalaren hazkunde lokalizatu baina azkarra; garapen horri dagozkion Estatuaren modernizazio eta arrazionalizazio burokratiko eta administratibo beharrezkoak; hamarkada batzuk lehenagotik potentzial iraultzailea erakusten ari zen proletariotza industrialaren ezohiko antolakuntza-indarra; eta Errusiako marxismoak Europako abangoardia sozialista osatzen duen zati gisa zuen bizitasun zorrotza. Baina Errusiako formazio soziala definitzen duten elementuetako bakar bat aukeratu behar-ko bagenu haren espezifikotasuna eta baldintza historikoak hobeto ulertze-ko, 1905eko iraultza liberalaz geroztik erakunde burgesekin modu parale- loan eratuak herri-boterearen egitu- rak izango lirateke (“botere bikoitzeko egoera” deritzona).





Boltxebikeen «Botere guztia sobietentzat!» aldarria ez zen desira demokratista inozente bat, ezta beste aukera batzuen artean zegoen hautu politiko bat ere, iraultza proletarioaren behar historikoaren irudikapen zorrotza baizik

Boltxebikeentzat, sobieten esentzia eta fisionomia iraultza burgesa iraultza sozialistaren forma germinalekin lotzearen emaitza zen, eta, beraz, laster ikusi zuten haietan herri-klaseen eta zapalduen diktadura iraultzailearen enbrioi-forma politikoa. Hori dela eta, boltxebikeen «Botere guztia sobietentzat!» aldarria ez zen desira demokratista inozente bat, ezta beste aukera batzuen artean zegoen hautu politiko bat ere, iraultza proletarioaren behar historikoaren irudikapen zorrotza baizik. Horregatik, Errusiako proletarioen antolaketa-formen garapen konkretua biziki baldintzatu zuten sobietar botere-formen izaera interklasistak, demokratikoak eta herrikoiak. Hala, abangoardiako alderdi proletario bat sortu zen, aspirazioetan eta klase-konposizioan zatiketa sakonak zituena eta masa-mugimenduarekiko erdi-kanpokotasunean kokatzen zena.

Hala ere, alderdiaren eta masen arteko lotura aldrebesak ez zuen alderdiak Urriko egun iraultzaileetan izan zuen buruzagitza-eginkizuna oztopatu. Aitzitik, guztiz kontrakoa. Egundorietan, alderdi boltxebikearen gidaritzapean, Errusiako proletarioak, fabriketan euren ugazabei espontaneoki nagusitzeaz gain, lortu zituzten garai-politiko-militarrak defendatu zi-

tuzten, sobietetan, herri-milizietan eta gobernu berriaren organoetan izan zuten parte-hartze gero eta handiagoa izanez. Alde horretatik, Urriko prozesu iraultzailearen izaera erabat sozialista ez da zalantzarik inondik ere, ez baitzuen soilik botere politikoaren egitura berrien inguruko autoantolakuntza proletarioa aurreko ezin esperientziak baino kualitatiboki gradu altuagoan bultzatu, baizik eta bere mugetatik kanpora ere zabaldu baitzuen, kapitalismoaren historian lehen aldiz ateak irekiz mundu mailako iraultza proletario bati.

Eztabaida, beraz, prozesu horren ondorengo baldintza historiko, sozial eta politikoen ardaztu beharko lukete. Iraultza sozialista nahitaez nazioartekoa –eta internazionalista– izan behar bazen, zein izan ziren, orduan, Europako proletarioen porrotaren ondorioak, bakarturik gelditu zen prozesu iraultzaile batentzat, zeina, ekonomikoki, politikoki eta kulturalki “atzeratuta” egoteaz gain, ia hamarkada bat gerran igarotzearen ondorioz erabat suntsituta baitzegoen? Aurreko atalean garatutako auzietatik abiatuta, galdera horri erantzuteko, zalantzan jarri behar dugu egiazki zein izan zen prozesuaren lehen faseetatik haratago boterea bereganatu zuen subjektu politikoa; ea politikoki independentea zen eta estrategikoki zentralizatuta zegoen erakunde proletarioen sarea izan ote zen –hau da, *letra larriz* idatzitako Alderdia– ala, kontrara, masen autoantolaketa mugimendutik gero eta bananduago zegoen abangoardiako erakunde bat izan zen.



Leninek berak iragarri zuen bezala, mundu mailako iraultzaren kolapsoak behin betiko desagerrarazi zuen iraultza sobietarraren jarraipen eraginkorrerako aukera oro

Esan bezala, 1917ko Urriatik aurrera piztutako nazioarteko prozesuaren bidez, Europako proletariotza iraultzailearen sekzio nazionalen antolakuntza bateratuak baldintzak zeuzkan, lehen aldiz, klaseen arteko mundu gerran agente politiko modura parte hartzeko gai zen Iraultzaren Alderdia eratzeko; autoeraketa prozesu horren puntu gorena 1919ko III. Internazionala izan zen. Nazioarteko testuinguru horrek ahalbidetu zien boltxebikeei, muturreko isolamendu eta barne-krisi egoera batean, iraultza sobietarraren sugarra piztuta mantentzen, betiere printzipio politiko baten mende egonik: ahal zen moduan irautea nazioarteko proleta-

rioen hurrengo ofentsiba iraultzailera arte. Zentzu horretan, eta Leninek berak iragarri zuen bezala, mundu mailako iraultzaren kolapsoak behin betiko desagerrarazi zuen iraultza sobietarraren jarraipen eraginkorrerako aukera oro, edo, hemen gauza bera dena, kolapso horrek ezintasuna ekarri zion proletariotza sobietarrari autoantolaketa masibo bat bultzatzen jarraitzeko, klase unibertsal bezala botere politiko propio eta benetan independente baten oinarri instituzionalak artikulatzea ahalbidetuko ziona.



Hala ere, iraultza sobietarraren arrakasta masen autoantolaketa prozesuari jarraipena ematean zetzala esatea ez da inolaz ere postulatu berri-tzaile bat, baizik eta, esan dugun bezala, komunismoaren programa historiko-unibertsalaren giltzarria. Leninen beraren hitzetan, proletarioen diktaduraren ezinbesteko baldintza zen botere politiko guztiaren oinarri iraunkor eta bakarria masa proletarioen antolaketa izatea. Hori izan behar zen “sobietar boterearen esentzia bakarria” [5], eta boltxebikeek konfiantza zuten prozesu hori Errusian gertatuko zela, Alderdian

eratutako nazioarteko proletarioen ofentsiba iraultzailearen itxaropenez. Zeren, errusiarrak ondo zekien moduan, forma sobietarra ez zen “talisman miragarri” bat iraganeko gaitzak gauetik goizera konpon zitzakeena, hala nola analfabetismoa eta kulturarik eza, gerra inperialistaren herentzia edo, oro har, ekoizpen-indarren garapen eskasa [6], eta are gutxiago berak bakarrik munduko kapitalismoaren joera kontrairaultzaileak gaindi zitza-keen formula magiko bat. Are gehiago kontuan hartuta proletariotza erakun- de eta administrazio sobietarretara

masiboki batzea –masa antolatuek gobernuaren, administrazioaren eta ekoizpenaren zuzendaritza osoa euren gain har zezaten– ez zetzala soilik parte-hartze demokratikorako mekanismo formalak ezartzean, baizik eta, esan bezala, trebakuntza tekniko-intelektuala bultzatzean, zeinak ekoizle zuzenei bizitza sozialaren zuzendaritza- eta administrazio-funtzioetan parte hartzea ahalbidetuko liekeen. Bestela, ezinbestean, burokrata profesionalen gutxiengo baten esku soilik gertatuko ziren funtzio horiek.

Ikusi dugun bezala, gai hori ez da mugatu behar gizarte kapitalista jakin bateko langile klasearen batez besteko garapen tekniko-intelektualaren mailara –oso “atzeratua” edo “aurreratua” egonagatik, eta horrek lurralde jakin bateko iraultza-zereginak baldintzatzten baditu ere–; aitzitik, sozialismoa eraikitzeko prozesuaren betebeharrak unibertsetan da, alderdi-aurreko faseetatik hasi eta forma gorenetaraino. Hala eta guztiz ere, problematika tekniko-intelektuala paradigmatikoki agertu zen sobietar esperientzian prozesu iraultzailearen muga gaindiezin gisa. 1919rako, Lenin jada ez zen hain baikorra masak botere sobietarrean integratzeari zegokionez, eta zalantzarik gabe aitortzen zuen iraultzak porrot handia egin zuela proletarioak administrazio publikoko organoetan sartzeko lanean ^[7].

Esan bezala, kultura-mailaren arazoa ezin zen ezein legeren mende jarri, eta jendeari trebakuntza emateko ezintasun objektiboaren aurrean, tsarren burokrazia zaharrera jotzea zen joera orokorra. Ildo beretik, ez zuen zalanztarik egin esperientzia sobietarraren muga historiko eta politiko nagusia azaltzeko: Estatuaren aparatua zaharra burgesiarengandik oinordetzan jasotzera behartuta egotearen zoritxarra ^[8]. Aipatu bezala, mundu mailako iraultzaren Alderdiaren oinarri politiko eta antolakuntza-oinarriak abiapuntu hartuta, iraultza boltxebikea garatzeko baldintza historikoek ezinezko egin zuten Estatu burges zaharra ordezkatzeko ez zezakeen estatu-egitura propioa eraikitzea, prozesu iraultzailearen beharren arabera. Edonola ere, boltxebikeen praktikak berretsi egin zuen era guztietako oportunistek hainbestetan aipatu gabe utzi zuten tesi marxista zaharra: Estatu burgesa ezin da suntsitu baldin eta botere proletario berriaren organo masiboek errotik eta bortizki ordezkatzeko ez badute.

Nolanahi ere, Estatu kapitalistaren gidaritza berriki hasita zuen agintari talde gero eta txikiago bat egoteak, eta alderdi hori gero eta bereziago egoteak masen autoantolakuntza-prozesutik – eta horrek ekar zezakeen ezein mekanismo demokratikotatik edo kontuak eskatzeko sistemetatik– erabat ireki zizkion ateak alderdi boltxebikearen deriba burokratikoari eta korporatibistari, Kapital nazional sobietarraren joera hedakorrek erabat finkatzeraino. Izan ere, orain arte esan dugun bezala, ez zegoen Alderdiri mundu mailako iraultza proletarioaren fase aurreratu gisara denborarekin Estatu-forma sozialistarrantz modu koherentean garatu ahal izango zenik, eta horrek zera ekarri zuen: Estatu kapitalistaren makineria burokratiko-militarraren bidez soilik irauarazi ahal izatea klase-borrokaren lorpenak eta haiek kristalizatu ziren botere eta gobernu forma pro-

letarioak. Horrek esan nahi du, jakina, burgesia desjabetzea eta ekoizpen-baliabideak bereganatzea Errusian ez zela egingo asoziazio masiboko prozesu baten bidez, non zuzeneko ekoizleek euren ekoizpen-jardueraren baldintza sozialak kontrolatuko zituzten eta, beraz, euren lana ere kontrolatuko zuten; kontrara, prozesu hori titularitate juridikoaren aldaketa baten bidez egin zen, zeinak, langile-masen jabetza eza handitzearekin batera, Kapitala beste gutxiengo berri baten eskuetan zentralizatzea eragin zuen. Estatu kapitalistak laster subsumitu zuen bere gidari berria, boltxebikeen alderdia; eta, alderdi hori erakunde iraultzaile gisa sortua izan bazen ere, laster bihurtu zen burokrazia sobietar hutsa. Horrela, Kapital nazionalak bere pertsonifikazio politiko berria aurkitu zuen estatu-aparatuan.

***Estatu burgesa ezin da
suntsitu baldin eta botere
proletario berriaren organo
masiboek errotik eta bortizki
ordezkatzeko ez badute***

Bestalde, joera burokratiko eta korporatiboak, nola ez, Kapital sobietarraren alderdiak munduko agertoki geopolitikoan sortutako nazioarteko harremanen bidez ere zabaldu ziren. Izan ere, nazioarteko iraultzaren porrotak Errusiako proletarioen autoantolaketa masiboaren prozesua agortu zuen era berean, iraultza sobietarrak haren partikula gisa atzera egiteak eta kolapsatzeak eta alderdia Estatu burgesaren egituraren subsumitzeak ezinezko egin zuten boltxebismoak munduko prozesu iraultzailearen balizko suspertze baten abiarazle gisara jardutea, Kontinente Zaharrean zein kontinente horretatik haratago. Esan dugun bezala, iraultzaren isolamenduaren eta potentzia kapitalisten setioaren aurka boltxebikeek baliatu zuten estrategia ezin zitekeen izan denbora irabazteko ahalegin desesperatu bat besterik, ahal zen moduan eusteko ahalegin bat, harik eta munduko iraultzaren hurrengo eztrandak botere berriko organoen eraikuntzaren bueltan proletarioen

autoantolaketa masiboaren prozesua suspertu ahal izango zuen arte. Koodenatu horietan kokatu behar dugu boltxebikeek atzera egin izana, batez ere 1921etik aurrera, ekonomia nazionala berehala garatzeari dagokionez herrialdearen barne-egoera egonkortzeko eta alderdiaren zuzendaritzan itzarotea ahalbidetzeko bitarteko gisa. Hala ere, eta Leninek berak bazekien bezala, ekonomia nazionala garatzeak berekin zekarren, edozein izanik ere gobernu boltxebikea Estatuaren bidez ekonomia horretan esku hartzen saiatzen zen modua, Kapitalaren mugimendu automatiko eta autohedakorraren logika itsuak askatzea; azken finen, lokomotora baten bagoira igotzea esan nahi zuen, zeinaren norabidea ezin zezaketen kontrolatu eta geldiarazi, gehienez ere denbora tarte labur batez “zamalkatu” soilik, eta otoi egitea munduko proletarioen erasoaldi berri batek behin betiko eten zezan.



Ekonomia nazionala garatzeak berekin zekarren, edozein izanik ere gobernu boltxebikea Estatuaren bidez ekonomia horretan esku hartzen saiatzen zen modua, Kapitalaren mugimendu automatiko eta autohedakorraren logika itsuak askatzea

“Sozialismorako bide” berezi horrek, diogun bezala, oso ibilbide laburra zuen baldin eta iraultzak ez bazuen berriro, berehalakoan, eztanda egiten. Bestela, Kapital-metaketa nazionalaren dinamikak berak, kanpora begira interes geopolitiko propioen sorreran eta defentsan adierazitakoak, bere mugen barruko zein kanpoko edozein ahalegin iraultzaile irentsi eta bere logiketara makurtuko luke. Horrela, Sobietar Estatu munduko sistema kapitalistan erabat integratu zen, hauek zirela medio: herrialdearen egonkortasunaren eta susperraldi ekonomikoaren aldeko barne-presioak, herrialde kapitalistekiko merkataritza-harremanak berrezartzea eta hari loturiko mugimendu diplomatikoak abiaraztea. Prozesu hori, hasieratik, proletariotza iraultzailearen interesekin antagonikoa izan zen argi eta garbi.

Sobietar esperientziaren ezaugarrien laburpen hau amaitzeko, ezin dugu aipatu gabe utzi –nahiz eta horrek elementu batzuk erdi itxita eta beste zenbait erdi irekita uztea esan nahi duen– barneko egonkortze eta hazkunde ekonomikoaren beharrak herrialde bakar bateko sozialismoaren teorian aurkituko lukeela bere justifikazio politikorik perfektuena. Teoria hori ofizialtzea mugarri izan zen iraultza proletarioaren estrategia ulertzeko moduan eta mundu erdiko

komunisten asmoetan. Ordutik aurrera, ez zen saiatu prozesu iraultzailea aurrera eramaten eta Alderdia mundu mailan lehengoratzeko biderik egokiena sistematikoki aukeratzen. Komunisten ekintza politikoa, orduan, Sobietar Batasunaren inguruko kohesioa handitzeko, Kominterneko zuzendaritzaren menpe jartzeko eta Sobietar Batasuneko Alderdi Komunistaren aginduak betetzeko maximaren arabera zuzendu behar zen, baita horrek proletariotza iraultzailearentzat sarraskia zekarrenean ere, askotan gertatu zen bezala. Azken finean, horixe zen “aberri sozialista handia” defendatzeak eskatzen zuen klase-sakrifizioa.

Eta lehengo lepotik burua... Mende bat geroago, komunismoaren mamuak oraindik arrastaka daramatza bere penitentziaren kateak.

Estalinismoa kritikatzeko iraultzaren kolapsoaren eta Kapitalaren joera kontrairaultzaileen forma historiko gisa ez da apeta teoriko bat, tradizioaren pisua hausteko beharrezko urrats bat baizik. Hala ere, kritika probetxuzkoa izango da soilik baldin eta iraultza sozialistaren egungo behar estrategikoen inguruko eztabaida zabal baten esparruan hedatzen bada. Hortxe dago, gure oraina isilarazten duten iraganeko aurreiritzien aurka, arrakastaren gakoa. ●





ERREFERENTZIAK


- [1] Stalin, J. (1924). *Leninismoaren oinarriak*.
- [2] Lenin, V. I. (1920). *Ezkerkeriaren haur-gaitza komunismoan*.
- [3] Marx, K. (1875). *Kritika Gothako Programari*.
- [4] Marx, K. (1867). *Kapitala* (Bol. 1).
- [5] Lenin, V. I. (1919). *Demokrazia burgesari eta proletariotzaren diktadurari buruzko tesia*. III. Internazionalako I. Kongresuari aurkeztua.
- [6] Lenin, V. I. (1890). *Zer da botere sobietarra?*
- [7] Lenin V. I. (1919). *Diskurtsoa Errusiako Alderdi Komunistako (b) VIII. Kongresuan. Lenin V.I. bilduman, Masak Estatuko administrazioan sartzeari buruz*. Progreso, Mosku.
- [8] Lenin, V. I. (1922). *Errusiako Iraultzaren bost urte eta mundu mailako iraultzaren ikuspegiak*. Internazional Komunistaren IV. Kongresuari aurkeztua.

HISTORIA
ERREPORTAJEA

XX. mendeko lehen erdiko mugimendu iraultzailea



Miguel García



Garaipenek eta porrotek zeharkatzen dute, historikoki, proletalgoak mugimendu politiko gisa izan duen eraketa. Garaipenek gure klaseak mugimendu iraultzaile gisa izan dituen mugarri nagusiak deskribatzen dituzte, bere heldutasun historikoa, ekintzaren sakontasuna; nazio edo kontinente bateko zein besteko porrotek, berriz, klase guztientzat, nazio guztietan, balioa duten ikasgaiak eta printzipio teoriko eta praktikoko jakin batzuk ematen dizkigute.

XX. mendeak eman ditu proletalgoak askapenerako bide oraindik amaitu gabe den horretan izan dituen lorpenik handienak, baita oztoporik handienak ere. Ordutik hona egindako bide hori aztertu ahal izateko beharrezkoa deritzogu, laburki bada ere, atzera egin eta II. Internazionalaren egitekoari erreparatzeari, historia amaieratik ez hasteko.

II. INTERNAZIONALA (1889-1914): LANGILE-MUGIMENDUAREN SENDOTZEA ETA HAUSTURA

Parisko Komunaren porrotak 1871n eta Langileen Nazioarteko Erakundearen (LNE) desegiteak 1876an garrantzi objektibo zein subjektibo izan duten bi baldintza garrantzitsu ezarri zituzten langile-mugimenduentzat: ekoizpen eredu kapitalista bere fase inperialistan sartzea eta milioika langile alderdi sozialdemokratetan antolatzea.


Beste hainbat gertakarik eta faktorek eragin zuten trantsizio horretan: 1) Batetik Amerikako Estatu Batuak bateratu izanak (1861 eta 1875 arteko Sezesio Gerraren ostean) eta bestetik Alemania bateratu izanak (1870eko Gerra Frantses-Prusiarraren ostean) kapitalismoaren garapenerako bi oinarriren sorrera ekarri zuen, baita mundu mailako indar korrelazioen aldaketa ere, Ingalaterraren eta Frantziaren kaltetan; 2) Ekoizpen-indarren garapena, bigarren industria-iraultzaren ondorioz; 3) Gainprodukzioaren krisia, 1873ko depresio handian erabat kristalizatu zena; 4) Protekzionismoaren agerpena, mundu-merkatua estutu izanaren ondoriozkoa; 5) Kapitalen zentralizazioa: monopolio-fenomenoaren agerpena eta konpetentzia askearen ezabapena –ordura arte nagusia zen–; eta 6) Lehengaiak eta mundu-mailako merkatu berriak berenganatzeko potentzia kapitalisten arteko borroka.

1876 eta 1878 artean borroka politikotik alden duen Marx (1883an hil zen), eta Engelsen esku utzi zuen eginkizun hori. Engels arduratu zen, beraz, garai horretan marxismoaren barruko polemika garrantzitsuenez. Engelsek langile-mugimenduan marxismoa zabaltzeko egindako la-

nari esker zenbait figura agertu ziren, hala nola Frantziako Lafargue, Guesde eta Sorel; Alemanian Bebel, Bernstein eta Kautsky eta, geroago, Liebknecht; Errusian Plejanov; eta Italian Labriola.

Garai horretan, European, langileen masa-alderdia izan zen antolatzeko modu hobetsia. Era horretako alderdiek milioika langile bildu zituzten, gai izan ziren gizarte burgesarekiko paraleloak ziren erakundeak sortzeko, eta gizarte burgesaren barruan eta harekin batera bizi ziren, baina iraultza egin gabe. Haien barruan garrantzi estrategiko handiko bi auzi nagusi eztabaidatu ziren: erreformaren eta iraultzaren arteko eztabaida batetik (Bernstein eta Rosa Luxemburg aurrez aurre jarri zituen), eta eraso egiteari edo higadurari buruzko eztabaida bestetik (aurrez aurre jarri zituen Kautsky eta Rosa Luxemburg).

II. Internazionala aldibereko eta elkarren aurkako bi kongresuren emaitza izan zen: bata, Frantziako sozialistek antolatua (guesdistak); bestea, blanquistek antolatua (Vaillant). Hala ere, II. Internazionalaren antolamendu-ereduak ez zuen Langileen Nazioarteko Erakundearen lehenengo ereduarekin loturarik. Ez zuen egitura zentralizaturik eta bateraturik, haren lekua estatu mailako alderdien federazio batek hartu baitzuen. Ordezkapen horrek autonomia ekarri zien alderdi horiei, zeintzuek beren auzien forma nazionala lehenetsi zuten erakunde hori gidatu beharko zukeen oinarri internazionalaren aurrean.



Hala ere, II. Internazionalaren antolamendu-ereduak ez zuten Langileen Nazioarteko Erakudearen lehenengo ereduarekin loturarik. Ez zuten egitura zentralizaturik eta bateraturik, haren lekua estatu mailako alderdien federazio batek hartu baitzuen

Horiek izan ziren II. Internazionala astindu zuten auzi garrantzitsuenak: arestian aipatutako erreformaren eta iraultzaren arteko eztabaida; botere politikoa hartzeko erasoaren ala higaduraren bideari buruzkoa; eta nazio-auziaren eta internazionalismoaren arteko harremanari buruzko eztabaida, kolonialismoaren ondorioz azaleratutakoa.

Auzi kolonialari dagokionez, II. Internazionalaren hegal oportunistak eta sozialchauvinistak, Vendervelde buru zuela, hauen alde egin zuten apustu: kolonien anexionaren alde (fabianoek Hegoafrika anexionatzearen alde, eta Kongo anexionatzearen alde belgikarrek); potentzia inperialista okupatzailearen menpeko "autonomiaren" figuraren alde (Indiaren kasuan); edo okupazio koloniala ukatzearekin batera koloniei independentzia graduala aitortzea onartzen zuten posizio zentristaren alde (Kautsky Alemanian). Errusiako sozialdemokratak ziren hegal iraultzailearen buru, eta iraultza sozialistaren aldeko borroka kolonien independentziarekin lotzen zuten nazioarteko politika jarri zuten martxan.

Lehen Mundu Gerra hasteak (1914) ekarri zuen II. Internazionalaren erabateko porrota. Izan ere, aipatutako hiru auziez gain, behin betiko haustura ekarri zuen laugarren bat ekarri zuen: gerra inperialista. Alemaniako sozialdemokratiak bere burgesiarengana bilduz erantzun zion egoerari: gerra-kredituen alde bozkatu zuen, zeinek milioika proletario bidali baitzituzten hiltzera. Proletalgo iraultzailearen ikuspegitik, aldiz, gerraren aurrean eduki beharreko jarrera derrotismo iraultzailean zetzan, hau da, kontua ez zen bakarrik gerra horretan norbere burgesiaren porrotaren alde lan egitea, baizik eta gerra inperialista masen gerra iraultzaile bilakatzea, iraultza sozialistaz politikoki irabazteko. Ikuspuntu horren aldekoak ziren boltxebikeak, eta baita Alemanian Rosa Luxemburg eta Karl Liebknecht ere.

Langile-mugimendu sozialistaren haustura orduan burutu zen, eta hala hasi zen proletalgoaren historian inoiz izandako aldi iraultzailerik gailenena. Irlandan, 1913an, greba iraultzaile batek altxamendua eragin zuen Ingalaterrako parlamentuan negoziatzen ari zen nazionalismo atzerakoia- ren, nazionalismo errepublikanoaren eta, noski, Ingalaterra potentzia okupatzailearen aurka. Irlandaren askatasunaren aldeko borroka eta kapitalismo inperialistaren garapenaren aurkako borroka ezinbestean lotu zituzten proletalgoa klase bezala askatuko zuen prozesu baten bidez. Hain justu, iraultza sozialistaren bidez soilik izan zezaketen benetako konponbidea nazioari eta nekazaritzari buruzko auziek. Odolez eta suz zanpatutako matxinada horren oihartzuna 1916ko apirilaren 24an agertu zen berriz, Pazko Altxamenduan Ingalaterraren aurka altxatu zenean Irlandako Herritarren Armada, proletarioek osatua (historiako lehen armada gorri gisa izendatu zuen Leninek). Armada hori 1913an sortu zuen James Connollyk, eta bere mugimenduak Irlandaren independentzia aldarrikatu zuen Errepublika sortuz. Lider nagusiak fusilatuz (lehen Connolly bera) eta 4.000 proletarioen aurkako errepresioarekin ito zuten matxinada.

Une horretan, klase-borroka biziko aldi bat hasi zen nazioarteko sozialdemokraziaren barruan ideologiari eta politikari dagokienez (batez ere Europan). Hegal iraultzaileak berriro jarri zuen mahai ganean Internazional berria eratzeko beharra. Zimmerwaldeko eta Kienthaleko konferentziek norabide horretan aurrera egin asmo zuten, baina aurrerapen partzialak baizik ez zituzten adostu, ez baitzen nahikoa esanguratsua nola bereizten zen zentrismoarekin, bakezaletasunarekin, eta, beraz, oportunistoarekin.

1917ko urrian, Errusian, alderdi boltxebikeak gidatutako lehen iraultza proletarioa gertatu zen. Errealitate bilakatu zen burgesiarentzat ordura arte utopia barregarria zirudiena, hau da, proletalgo iraultzaileak botere politikoa konkistatzea eta proletalgoaren diktadura ezartzea. Baina ezin zen hain erraza izan; izan ere, urriko matxinadaren ostean ia berehala etorri zen Errusiako gerra zibila, eta, hartan, potentzia inperialista nagusiek aktiboki hartu zuten parte. 1923an amaitu zen gerra zibila, boltxebikeen garaipenarekin, eta, iragarpen guztien kontra, iraun egin zuen lehen iraultza proletario arrakastatsuak.

III. INTERNAZIONALA EDO INTERNAZIONAL KOMUNISTA (1919-1943): MUNDUKO ALDERDI KOMUNISTA

Errusian, 1922an Sobietar Errepublika Sozialisten Batasun izendatu zuten lurraldean, sozialismoa eraikitzeko bideari ekiteko aukera eman zuen Urriko Iraultzak, baina, horrez gain, iraultzaren sugarrak mundu guztian eta bereziki Europan zabaltzea ekarri zuen. Alemanian Azaroko Iraultza (*November Revolution*) ekarri zuen 1918an, zeina sozialdemokratek Rosa Luxemburg eta Karl Liebknecht hil zituztenean amaitu baitzen; Finlandiako altxamenduak eta grebak ere izan ziren 1918an; Hungarian iraultza 1919an; eta Italiako iparralde osoan (1919-1920) Biurteko Gorria delakoa (*Biennio Rosso*) izan zen 1919an eta 1920an, eta fabriken okupazioa eta fabriketako kontseiluen moduko benetako botere-organo proletarioak sortzea ekarri zuen. 1921ean Italiako Alderdi Komunista jaio zen, Italiako Alderdi Sozialista erreformista eta sozialchauvinistarekin hautsi ostean.

Hegal iraultzaileak berriro jarri zuen mahai ganean Internazional berria eratzeko beharra. Zimmerwaldeko eta Kienthaleko konferentziek norabide horretan aurrera egin asmo zuten, baina aurrerapen partzialak baizik ez zituzten adostu, ez baitzen nahikoa esanguratsua nola bereizten zen zentrismoarekin, bakezaletasunarekin, eta, beraz, oportunistoarekin

Internazional Komunistaren I. Kongresuan, beraz, gai nagusi izan ziren II. Internazionalaren erreformismoa eta kapitalismoa aldi berean eroriko zirela zioen tesia, Mendebaldean iraultza gauzatzeko aukerak eta sozialdemokraziarekiko haustura politiko oraindik bukatugabeak


1919. urtean sortu zen Internazional Komunista, eta urte hartako martxoaren 2tik 7ra izan zen haren I. Kongresua. Bertan sinatutako adierazpenak dio “elementu sozialtraidoreetatik” erabat bereiziko zen nazioarteko erakunde iraultzaile bat sortu behar zela, eta haren gidaritzan eraman behar zuen alderdi nagusia Alderdi Boltxebikea izango zela. Berretsi zen Urriko Iraultza zela norabide egokia botere politikoa konkista zezaten alderdi iraultzaileek (mota berriko abangoardia-alderdiak, desberdinak masa-alderdi sozialdemokraten aldean). Internazional Komunistaren I. Kongresuan, beraz, gai nagusi izan ziren II. Internazionalaren erreformismoa eta kapitalismoa aldi berean eroriko zirela zioen tesia, Mendebaldean iraultza gauzatzeko aukerak eta sozialdemokraziarekiko haustura politiko oraindik bukatugabeak.

Olatu iraultzaile betean (1918-1919), iraultza eta matxinada guztiak zapaldu zituen burgesiak, banan-banan. Testuiguru horretan elkartu zen Internazional Komunistaren II. Kongresua, 1920ko uztailaren 21aren eta abuztuaren 6aren artean, proletalgo iraultzailearen bultzadari erantzunez. Antolakuntzako aurrerapen errealei (indar politikoa eta pisu espezifikoak zuten alderdiak sortzea) I. Kongresuan hasitako programaren zehaztapena falta zitzaion, bereziki Leninek “Demokrazia burgesa eta proletalgoaren diktadura” gaiari buruz egindako tesian adierazitakoak. Premiazkoa zen iraultzaren programan homogeneotasuna lortzea, piztutako gar iraultzailea ez galtzeko. Homogeneizazio horren emaitza izan ziren “Internazional Komunistako kide izateko 21 baldintzak”. Baldintza horiek berekin zekarten irmoki onartzea II. Internazionalarekiko errotiko haustura eta mota berriko

abangoardia-alderdiaren ikuskera. 1920ko Ekialdeko Herrien Bakuko Kongresua garrantzi handiko gertakaria izan zen, herrialde inperialistetakoa eta inperialismoak zanpatutako herrialdeetako mundu mailako mugimendu iraultzaileen batasuna ekarri baitzuen.

1921eko martxoan, nazioartean koordinatutako lehen matxinada prestatu zuten (ofentsibari buruzko teoria eta ekintza partzialari buruzko teoria) Alemaniako iraultza komunistarako. Ofentsibari buruzko teoriak matxinada bultzatzen zuen Alemanian, proletarioek borroka iraultzaileerako joera “objektiboa” zutelako ezartzen baitzuen. Proletario horiek, baina, hamarkada askotan erreformismoaren praktiken eragina jaso ostean eta horretan heziak izan ostean, urrun zeuden klase gisa eta gehiengoz iraultza sozialaren alde egitetik. Influentzia horrek somnifero baten moduan eragiten zuenez, masa horiek mugimenduan jartzeko eta ekintza iraultzaile masibora eramateko beharrezkoa zen, masak alde batera utzita, alderdiaren ekintza independente bat (ekintza partziala).

Matxinaden porrotak eta hasitako iraultza laburrei tinko eusteko ezintasunak (SESBn izan ezik) Fronte Bakarraren politikarako urratsa ekarri zuten. Internazional Komunistaren III. Kongresuaren (1921eko ekaina) eta IV. Kongresuaren (1922ko azaroa) artean diseinatu zuten hori.




Kontraesankorrak izan ziren olatu iraultzailearen emaitzak. Alde batetik, Lehen Mundu Gerraren ostean, komunisten erasoei eustea lortu zuen sozialdemokraziak, baita bere klase-posizioa egonkortzea ere; izan ere, haren burokrazia (langile-burokrazia, alderdikoia, sindikala eta parlamentukoia) ez zen hautsi. Ordea, (eta hori zen bere ahulezia), ordurako ez zen eztabaidaezina langile-mugimendua berruan zuen hegemoniaren gidaritzat. Komunismoari, berriz, nazioarteko iraultza indargabetuta eta itota gelditu zitzaion epe laburrerako. Lezio gogorra zen ikustea kapitalismoa, itxuraz, sistema hauskorra izan zitekeela (zabala, oso konplexua, hainbat akats puntu posiblerekin), baina berrosatzeko eta egokitzeko gaitasun harrigarria zeukala. Lezio positiboa zen, ordea, proletarioen artean prestigio handia zutela komunistek, eta, Europako herrialde gehienetan gutxiengoa izan arren, indartuta atera zirela, baina oraindik langile-klasearen gehiengoa irabazteke zutela. Eta beste zailtasun bat: iraultzarako berehalako aukera espero izatekoa baldin bazen, bere porrotak posizio deserosoago batean jarri zuen proletarioa, jada borroka ez-ofentsiboetatik abiatu behar baitzuen.

Gertakari horietan oinarrituta, arerioekin, hots, sozialdemokratekin politika bateratua egitea proposatu zuten. Internazional Komunistako Kontseilu Exekutiboaren teoriaren arabera, kapitalismoak aldi baterako egonkortzea lortu zuen, eta komunistek bat egin behar zuten fronte batuekin langile-klasearen barruko indar iraultzaileen gainbehera gelditzeke. Herrialde batzuetan, hala nola Italian, “behetik” sortutako fronte batu gisa ulertu zen tesi hori; hau da, ulertu zen fronte horiek erakunde erreformistetako kideek osatu behar zituztela (baina ez buruzagiak). Beste kasu batzuetan, Britainia Handian kasu, ulertu zuten “goitik” sortutako fronte bat sortu behar zela, buruzagi erreformistak ere bazituenak. Sindikatuak izan ziren langile-klasea elkartzeko eta antolatzeko muina, eta Internazional Komunistak uste zuen haietatik elikatzen zela Alderdia etorkizuneko koadro komunistaz. Fronte Bakarraren politika, horregatik, langile-mugimendua ekintza bateratu batera bideratzeko politika bat zen, indar sozialdemokraten aurka borroka egiteari begirakoa. Politika hori aldi baterako atzerapausotzat jotzen zuten, garaipen iraultzailearik ezaren eta erreformismoaren indarra handitu izanaren ondorioztzat, artean erreformismoa ospe txarra izatetik urrun uzten zuena.

Hala ere, Fronte Bakarraren politikaren eragin praktikoak ia deusezak izan ziren. Internazionalen sozialdemokratekiko konpromiso bat bilatzeko taktika ez zen izan indarrik eta proiektiorik gabeko adierazpen formal bat baino. Are gehiago, handik gutxira, Internazional hori II. Internazionalera itzuli zen. Horren eraginik garrantzitsuenak maila teorikoan izan ziren: planteatu zen ea programa komunistak batek nola gida ditzakeen masak berehalako borroketatik boterea lortzeko borrokarat. Txertatutako neurriak beti ziren iragankorrak, eta inoiz ez finkoak.

Fronte Bakarraren politika, horregatik, langile-mugimendua ekintza bateratu batera bideratzeko politika bat zen, indar sozialdemokraten aurka borroka egiteari begirakoa. Politika hori aldi baterako atzerapausotzat jotzen zuten, garaipen iraultzailearik ezaren eta erreformismoaren indarra handitu izanaren ondorioztzat, artean erreformismoa ospe txarra izatetik urrun uzten zuena

Alemaniano Alderdi Komunistak (KPD) Fronte Bakarraren politika besarkatu zuen, eta hainbat eztabaida sortu ziren “langile-gobernu” bat eratzeari buruz; parlamentuan hegemonia irabazteko aukerari buruz eta hori proletarioaren diktadurari lotzeari buruz; eta alderdi horrek “trantsizio-tresna” gisa izango zuen eginkizunari buruz. Eztabaida horiek guztiek markatu zuten Internazional Komunistaren IV. Kongresua. Herrialde kapitalista garatuetan, iraultzaren beheraldiak mahaira atera zituen arazoetan ardaztu zen estrategia. Arazo horien artean zeuden langile-mugimendua berruan indar errealeak; defentsa-borrokak eta horien zeregina; klasearen barruko tradizio parlamentarioa (parte-hartzea, abstentzioa eta boikota); aldarrikapen partzialak eta haien harremana programa komunistarekin; edota sindikatu erreformistetan egin beharreko lana.



1923an, krisi iraultzaile bat izan zen Frantziak Ruhr okupatzean. Frantziako komunistek (PCF) eta Lan Bateratuaren Konfederazio Nagusiak bat egin zuten, KPDren fabrika-batzordeekin batera (SPDtik bereizitako alderdia), okupazio hori geratzeko sabotajeen eta greba orokorren bidez; proletarioen eta Polizia burgesaren arteko liskar militarrek izan zituzten borroka horiek ondorio. Geroago, 1923ko urrian, matxinada armatuak piztu ziren Berlinen, Bavarian, Renanian eta Hanburgon (langileek hartu zuten hiria). Burgesiaren indarrek matxinada-saiakerak itzali zituzten langile-batzordeak deseginez. Alemaniako ekintza iraultzaileek jarraipena izan zuten Polonian, Krakoviako hiria hartzearekin; Bulgariako urtebeteko iraultzarekin; edo Estoniako matxinadarekin. Mugimendu horiek guztiak indar bultzatzaile baten eta eredu baten babesean jaio ziren, hain justu, Urriko Iraultzaren babesean, eta horrek teleologia politiko onuragarri bat ahalbidetzen zuen epe motzean, baina arazoak zituen epe luzean; izan ere, haren kontra erabil zitekeen irekiera politikoak sortzen zituzten iraultzaren saihetsezintasunak, sozialismoaren garaipenarekiko fedea eta kapitalismoaren kontraesanek etengabe aukera politikoak sortzen dituelako konfiantzak. Era berean, Urriko Iraultzak Europako alderdi komunistak guztietan (bereziki Alemaniakoan) izan zuen ispiluak modu gordinean erakutsi zituen bere akatsak: sozialdemokrazia kapitalismoaren indar egonkortzailea zen maila ekonomikoan eta politikoan, beste inor ez bezalako; bere instituzioek legitimitatea eta tradizio sendoa zituzten lan-

gile-mugimenduan, eta, hau da garrantzitsuena, ez zegoen borroka iraultzaileen ondare sendorik Mendebaldean. Elementu horiek guztiak, hain justu, Urriko Iraultzan gertatu zenaren kontrakoak ziren. Hala, Alemaniako 1923ko iraultzaren porrotak itxi egin zituen Errusiako iraultzaren ostean European ireki ziren aukera iraultzaileak.

Ondorioz, Internazionalaren eta SESBren politika goitik behera aldatu ziren. SESBn, barne-mailan, “etengabeko iraultza” eta “herrialde bakar bateko sozialismoa” izan ziren hizpide eztabaidetan. Stalin buru zuen azken posizio hori izan zen 1927an garaile atera zena. Iraultzaren beheraldiaren eraginez, aldi baterako neurri gisa, iraultzaren itsasargi modura mantendu zen SESB. Baina hasierako elementu taktiko izatetik, pixkanaka, printzipio estrategiko izatera igaro zen. Horrek eragin zuen SESBk mundu kapitalistarekin harremanak normalizatu nahi izatea, bere barne-garapena jartzea munduko iraultzaren interesen gainetik, eta Internazional Komunistaren zeregina murriztuz joatea, erabat tresna propio bihurtu arte. Egoera hori argi eta garbi ikusi zen Sobietar Batasunaren aldaketan; Britainia Handiarekin harremanak hobetu zituen eta Estatu Batuekiko lotura ekonomikoak indartu, baita Alemaniarekiko elkarrizketak izan ere. Stalin eta Chicherin erlaxatu egin ziren kanpo-merkataritzako monopolioari zegokionez. Nazioarteko egoera eta alderdiaren barruan zegoen gogoia ez ziren jada potentzia kapitalisten kontrako gerra berri bati ekiteko modukoak ^[1].

Elementu horiekin egin zuten Internazional Komunistaren V. Kongresua (1924), Alderdi Komunisten boltxebizazioa oinarri harturik. Internazional Komunista osatzen zuten partaide ia guztiek onartu zuten hori, Italiako bordigistek izan ezik. Ikuspegi hori kritikatu zuten haiek, alderdi boltxebikearen antolaketa-egitura berdina hartzeagatik, kontuan izan gabe herrialde bakoitzeko proletalgoaren interesei dagozkien ezaugarriak eta berezitasunak. Aldaketa politiko horren norabidean, Bukharin Internazional Komunistaren buru izan zen garaiak etorri ziren. Haren gidaritzan zehar, “klasea klasearen kontra” politika onartu zuten, zeinak sozialdemokrazia seinalatu baitzuen sozialfaxista, sozialchauvinista eta sozialinperialista gisa ^[2]. Testuinguru horretan, faxismoak Italian izandako gorakada eta garaipena oroitu behar ditugu, baita Alemanian izaten ari zen garapen gero eta kezkarriagoa ere. SESBren jarrera, une horretan, bi posizioen artean mugitzen zen: gainerako potentzia kapitalistekin bake- eta elkarbizitza-politika bat izatea, baina “etsia hartu eta kapitalismoa onartu gabe” ^[3]. Internazional Komunistaren politikari begira, horrek 30eko hamarkadaren hasierara arte ikuspegi iraultzaileak desagertzea eta haren sekziorik aurreratuenaren porrot egitea ekarri zituen.

Herrialde kolonialekiko politikari dagokionez, 20ko hamarkadaren hasieratik, zehazki Internazional Komunistaren II. Kongresutik, herrialde kolonial eta atzeratueta burgesia nazionalarekin aldi baterako aliantzak sortzeko posizioa hartu zen, betiere burgesia horrekin bat ez egiteko eta une oro independentzia politikoa mantentzeko baldintzarekin. Hala ere, egitateetan, orientazio hori desitxuratuz joan zen eta mugimendu nazional burgesen mende jarri ziren alderdi komunistak, Asia osoan gertatu zen bezala. Txinako Alderdi Komunistarena izan zen kasurik mingarriena. Hain justu, 1920ko ia hamarkada osoan zehar, burgesia nazionalistarekiko lankidetzaren eta aliantza-taktika baten bidea hasi zuen. Kuomintangek (KMT) gorpuztu zuen hori, Kominternen mundu mailako taktikak markatutako norabidea jarraitu zuzenean. Burgesia nekazariak, landa-eremuko jabetza-harremanak arriskuan jartzen zuen nekazari-borroka gelditzeke saiakeran, aipatutako aliantza probestu zuen Txinako Alderdi Komunista ahultzeko. Horren ondorioz, zuen posizio politikoki independentea galdu zuen Alderdi Komunistak, hots, erreferentziazko posizioa nekazariarentzat eta proletarioentzat, eta ildo eskuindar eta bakegile bat hartu behar izan zuen, zeina ez baitzen nahikoa izan, hala ere, Kuomintangentzat. 1927an, Kuomintangek berak erabaki zuen, aldebakartasunez, aliantza hori haustea, eta sistematikoki milaka komunista sarraskitzea landa-eremuan eta hirian. Iraultzaileak atzera egitera behartu zituen horrek, euren alderdia bera suntsituta ikus ez zezaten. 1927ko urtean bertan eman zioten buru tragediari, Kantonen izandako matxinada proletarioa zapaldu zuenean Kuomintangek.

Txinako Alderdi Komunistaren zartada politikoaren eta alderdi horrek Kominternen oposizioaren aurrean KMTrekiko aliantza hautsi ostean, Txinako iraultzaren masa-ildoak erdian jarri zituen nekazari pobreak eta lurrengatik egindako gerren eta masa horien etengabeko matxinaden ondorioz urrutiko lurretan bizi ziren nekazari taldea^[4]. Hirietan izan zen proletarioen sarraskia zela-eta Txinako Alderdi Komunistak nekazarien mugimenduan arretoa jarrita egindako apustuaren ondorioz, alderdi horrek SESBren eta Internazional Komunistaren estrategiarekin hautsi zuen, hiru puntutan:

1. Kontra egitea Alderdi Komunista Kuomintangean barruan disolbatzeari, eta, Stalinen posizioaren aurka, alderdiaren antolaketa-independentzia aldarrikatzea eta horren alde borroka egitea;

2. Proletalgoa Alderdi Komunistaren bidez gidatzea, iraultza burgesaren fasean barne, Internazional Komunistaren ulerkera mentxebikeekin hautsiz;

3. Herri-gerra bat abiaraztea herrialde erdikolonial eta erdifeudal baterako estrategia iraultzaile gisa, eta, horretarako, oinarri hartzea botere politikoko organo iraultzaileen eraikuntzan eta borroka armatuari ekiteko ildo militar baten zehaztapena, Internazional Komunistaren matxinada-estrategia agortuaren aurka. Aldi berean, borroka ideologikoa eta politikoa hasi zen Txinako Alderdi Komunistaren barruan, hala eskuineko oportunistoari aurre egiteko (Kuomintangarekin eta lurjabeekin lotura estua bilatzea), baita ezkerrekoari ere (nekazari-masen borrokari bizkarra ematen zion matxinada-obrerismoan harrapatua).

Haustura horrek indar iraultzaileak landa-eremuko babes-oinarrietan berreraikitzen hastea ekarri zuen, hots, Martxa Luzea izenez ezagutzen den hori. Hor, Txinako Alderdi Komunistak bere posizio independente eta erreferentziazkoa berreskuratu zuen, eta landa-eremuan irekita zeuden arazoei soluzio iraultzailea emateko indar bakar bilakatu zen, baita iraultza komunista arrakastaz burutzeko ere. Bereziki 30eko hamarkadatik hasi eta 40ko hamarkadaren amaierara arte baina baita ondoren ere, Txinako iraultzaren ibilbidearen ezaugarri nagusia izan zen Kominternen taktikarekin ados egotea baieztatzen zuela formalki, baina ekintzetan sistematikoki desobeditzen zuela hark zioena. Txinan, Wang Minggen lerroak –defendatzen zuen Sobietar Batasuneko Alderdi Komunistak izan behar zuela gidaritzak Kominternen bidez– interes sobietarrak lehenesten zituen Txinako iraultzaren helburuen gainetik; lerro hori pitza-

tzen joan zen pixkanaka Zheng Fengen Kanpainara bitarte, non Maoren posizioa gailendu zitzaion nabarmen SESBko Alderdi Komunistarenari^[5]. Orduan, Internazional Komunistarekiko tentsioak agerian gelditu ziren, eta Txinako Alderdi Komunistako lider gorenak uko egin zioten Sobietar Batasuneko lotura-taldearekin bilerak egiteari, eta Alderdi Komunistako inteligentzia-koadroak, Kang Shengen gidaritzapean, Txinan zeuden sobietar langileak jarraitzen hasi ziren^[6]. Aldi berean, utzi egin zioten SESBri Txinako Alderdi Komunistaren barneko auzien berri emateari, eta politika iraultzailea kanpo-injerentzia guztietatik kanpo gelditu zen. Bigarren Mundu Gerra amaitu eta Txinan Japoniaren inperialismoa gailendu ondotik, gerra zibil irekia hasi zen Kuomintangaren eta Txinako Alderdi Komunistaren artean; azkenean, Alderdi Komunistak irabazi, eta iraultza aldarrikatu zuen 1949an.

Hori herrialde kolonialetan izan zen; aldiz, Europan, 30eko hamarkadara arte ez zen 1920ko hamarkadaren hasierakoa bezalako altxamendu iraultzailerik izan. 1933an, nazien alderdiak boterea eskuratu zuen Alemanian; errepresio izugarria abiarazi zuen langile-mugimenduko erakunde guztien aurka, eta sindikatuak erabat integratu zituen Estatuan. Politika horren eraginez, Europako burgesia auzitan jartzeko mugimendu komunistak zuen zutabe nagusietako bat egonkortu zen. Iraultza-esperientziarik nabarmenena Espainian izan zen, lehenbizi Asturiasko altxamendu proletarioan (1934ko urriaren 5ean), eta, geroago, Espainiako gerra zibilean (1936-1939). Tamaina ikaragarri handiko mugimendu iraultzaile hartan, abangoardiako proletariotza garatu zen, zeina fabrikak okupatzen, ondasunak kolektibizatzen, eta, Aragoiko Kolektibitateen Federazioaren kasuan, dirua deusezten saiatu zen (1937). Faxismoak pizturiko gerra haren eta Internazional Komunistak VII. Kongresuan ezarri zuen subordinazio politikaren eraginez (politika horrek alderdi komunistei agintzen zien herri-fronte antifaxista bat sortu behar zutela burgesia demokratikoarekin faxismoa gerarazteko), edonolako independentzia politikoren guztizko desarmatzea eta edonolako independentzia politikoren heriotza izan zituen ondorio, demokrazia burgesaren edo faxismoaren artean aukeratu beharra baitzekarren. Espainian, horren ondorioz, PCE II. Errepublikako eta Kominternen beso armatu bilakatu zen, eta, gerra irabaztearren, uko egin zion iraultza egiteari. 1939an indar faxisten garaipenarekin batera, 40 urteko diktadura faxista hasi zen.


Bigarren Mundu Gerrak krisi- eta iraultza-sasoi bat ekarri zuen, non Europa goitik behera suntsitu zen, baina iraultzarako aukerak ere sortu ziren. Hain justu, Albaniako komunistek garaipena lortu zuten, lehenbizi faxista italiarren aurka eta gero nazi alemaniarren aurka egindako nazio-askapeneko gerran, eta, gaur egunera arte, bera da Europako historian garaile izan den iraultza proletario bakarra (1946). Albaniako Alderdi Komunistaren ernamuina 1928-1933 aldian sortu zen; garai hartan, komunismoa ikasketa-zirkuluak sortzearen bidez hasi zen hedatzen. Hala, nukleo intelektual bat sortu zen, zenbait zelula komunistari proiektio handiagoa eman ziena. Behin lehen mugarri hori lortu zutela, 1933-1935 aldian burgesia progresistaren borroka neurrigabea nagusitu zen; Fierren matxinadak eszenifikatu zuen hori (1935) Zog erregearen monarkia feudalista garaitu zuzenean, baina, azkenean, porrot egin zuen. Garai hartan agerian gelditu zen burgesiak berak nolako ezintasuna zuen edonolako iraultza bat gauzatzeko, eta, ondorioz, zeregin eskerga hori proletalgoak bakarrik bukatu zezakeela, aurre eginez iraultza demokratiko-burgesa osatu eta iraultza proletarioa gauzatzeko premiei. Matxinadaren porrotaren

segidan eta 1941era arteko garai erabakigarrian, komunistak masa proletarioak bi frontetan konkistatzeko antolatu ziren:

1. Hirietako langile-mugimendua, zuen indar sindikalagatik;

2. Landa-eremuan eta mendietan, nekazari-masak konkistatzeko botere politikoko organoen bidez eta Alderdiaren gerrilla-indarrak prestatzeko bitarteko gisa, iraultzaren le-
rro militarra garatzearen ^[7].

1941 urte giltzarria izan zen Albaniako Alderdi Komunistarentzat, batetik SESBk Bigarren Mundu Gerran esku hartzeak eta parte hartzeak (eta bi urte geroago Internazional Komunista desagiteak) eta, bestetik, ez egoteak indar demokratiko burges finkatu eta erroturik Albanian, indartu egin baitzuten alderdi horrek proletalgoaren alderdi moduan zuen indarra. Mugimendu iraultzailearen zuzendaritzarako eta batasunerako zelaia erabat libre zegoen nazio-askapen gerra bat abiarazteko. Gainera, herri-fronte bat sortzearen tesiek ez zuten inolako garrantzirik, okupazio inperialistagatik eta, lehen esan dugun moduan, herrialde semifeudal horretan erabat ahulak baitziren indar sozialdemokratikak.



Balkanetan ere nazio-askapenerako mugimendu iraultzaile bat egon zen, Jugoslaviako partisoen gidatua, eta Bigarren Mundu Gerran zehar faxismoaren eta nazismoaren kontra egin zuen. Jugoslaviako Alderdi Komunistaren bitarteko eta indar propioak izan ziren borroka horren gidari. Alderdi moduan 1919an sortu zen, Belgraden erakunde sozialdemokratek bat egin eta Jugoslaviako Langile Sozialdemokraten Alderdia sortu zutenean. Alderdi hori bizkor atxiki zitzaion Internazional Komunistari, eta proletalgoaren diktadura izatea aldarrikatu zuen helburu moduan. Langile-mugimendurekin egindako lan politikoa bien bat-egitera bideratuta zegoen, eta 1919an eman zituen fruituak; lehenik eta behin, Langileen Kontseilu Sindikal Zentrala aukeratzearen bidez mugimendu sindikaleko langileak integratzeari esker, eta, gero, emakume sozialisten biltzar bat egiteari esker. Era berean, Zagreben Jugoslaviako Gazte Komunisten Liga eratu zen. 1919a, halaber, Jugoslaviako mugimendu komunistaren historian giltzarri izan zen alderdiaren programa definitu zutelako, eta, 1920an, Jugoslaviako Alderdi Komunista izena edukitzera igaro zelako.

Komunisten hazkundera azkar loratu zen hiri batzuetako udal hauteskundeetan (Belgrad, Osjek, Skopje edo Zagreb hirietan, besteak beste), eta baita sindikatuetan presentzia indartsua zutelako ere (70.000 bat kide osotara) ^[8]. Emaitza modura, lehenengo ekintza iraultzaileak komunistek eta langileek gidatutako greba orokor segida bat izan zen, burgesiak abiarazitako jazarpenari desafio egin eta harekin amaitzea zuena helburu; izan ere, burgesiak udal hauteskundeak baliogabetu, botere-organo iraultzaileak erreprimitu eta sindikatuen egoitzak desartikulatu zituen, baita lanaren militarizazioaren alde egin ere. Hala ere, Europako langile-mugimenduaren beheraldiak eta Alexander I.aren diktadura monarkikoak eraginda, Alderdiak, errepresioagatik, ez zuen klandestinitatera pasatzea ez zen beste aukerarik izan, desagertu nahi ez bazuen. Bigarren Mundu Gerra hasi zenean, Alemaniak, Hungariak, Errumaniak eta Bulgariak inbaditu zuten Jugoslavia. Monarkia erbesteratu egin zen, eta horrek joko-zelai aproposa utzi zien Jugoslaviako komunistei, hamarkadak eman ostean ahul eta politikoki baztertua. 1941ean hasi eta 1945era bitarte, nazio-askapen mugimenduan 1.200.000 partiso jugoslaviar hil zituzten ^[9], baina, era berean, Ardatzeko potentziek porrot egin zuten, eta Jugoslaviako Errepublika Federal Sozialista sortu zuen Alderdi Komunistak, Josip Broz Tito buru zuela.

Azkenean, Internazional Komunistaren VII. Kongresua azkeneko kongresua izan zen. Nahiz eta aurreikusten zen VIII. Kongresua egitea, Internazional Komunistak bere burua desegin zuen 1943an bere kideek sinatutako adierazpen baten bitartez. Mundu-mailako iraultzaren gidari izatetik faxismoaren aurkako erresistentzia-bitarteko izatera igaro zen, eta Sobietar Batasunaren kanpo-politikarako tresna; 1930eko hamarkadatik aurrera Ekialdeko eta Europako iraultzak ito zituen. Horiek horrela, denik eta modurik tristeenean amaitu zen proletalgoaren nazioarteko zentrorik handiena: behinola kapitalismoa lurperatzearen alde egin zuen erakunde goren izatetik kapitalismoaren beraren salbatzaile izatera igaro zen. Historiak kapritxosoki modu tragikoan erakutsi digunez, II. Internazionala Lehen Mundu Gerra hastearekin batera erori zen moduan, beste mundu gerra batek behin betiko heriotza ekarri zion geure klaseak inoiz izan duen Internazional boteretsuenari. ●

Historiak kapritxosoki modu tragikoan erakutsi digunez, II. Internazionala Lehen Mundu Gerra hastearekin batera erori zen moduan, beste mundu gerra batek behin betiko heriotza ekarri zion geure klaseak inoiz izan duen Internazional boteretsuenari

ERREFERENTZIAK

[1] Analisi xeheagoa irakurtzeko, irakurri Reimanen lan hau *Estalinismoaren jaiotza: SESB "Bigarren Iraultzaren" bezperan*.

[2] “La lucha de clases, la socialdemocracia y el fascismo”, Internazional Komunistaren VI. Kongresua, Cuadernos de Pasado y Presente, 66 zb., 105.or.

[3] “Tesis sobre la lucha contra la guerra imperialista y la tarea de los comunistas”, Internazional Komunistaren VI. Kongresua, 1928, Cuadernos de Pasado y Presente, 66 zb., 157.or.

[4] Ikus *Hunaneko nekazari mugimenduaren ikerketa*, Mao Zedongek idatzia 1927ko maiatzean.


[5] Maoren testuetan esaten da joera negatiboa 1932an hasi zela, eta ez zela zuzendu 1935eko Zunyiko Biltzarrean, ezta 1938ko Osoko Bilkuran ere. Ez zen guztiz zuzendu Yananneko Mugimendura arte, hots, 1942-1945 aldira arte.

[6] *Analisi xeheagoa irakurtzeko, ikus Vladimirov Egunerokoak. Peter Vladimiroven Eguneroko Sekretuak, Mao Zedongen Txinari buruz Bigarren Mundu Gerran*.


[7] Albaniako Alderdi Komunistaren eraketari buruzko analisi xeheagoa irakurtzeko, ikus, véase *Albaniako Lanaren Alderdiaren historia*, *Templando El Acero* argitaletxearena.

[8] *Yugoslaviako Komunisten Ligaren historia*. Communist, 1985.

[9] Informazio xeheagoa nahi izanez gero, irakurri Nikola Grulović-en liburu hau *Yugoslaviarrak gerran eta Urriko Iraultzan*, Rad 1965.







Argitalpena
2023KO AZAROA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
GEDAR LANGILE
KAZETA

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR
FACEBOOK
@ARTEKAGEDAR

Kontaktua
HARREMANAK@
GEDAR.EUS

Harpidetza
GEDAR.EUS/
HARPIDETZA

Edizioa
ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia




arteka